

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a / 720. zenbakia

ETXEBIZITZAK / Hasi dira Gelmako etxebizitzekin lotutako lanak egiten

Hilabete eta erdiz jardungo dute Gelmako eraikin zaharrak eraisten, etxeak egiteko

UBANE MADERA

Oraingo astean hasi dira Gelma lantegiko eraikinak eraisten. Hilabete eta erdi beharko dute eraitsi beharrekoa eraisteko. Horren ostean, hondeatze-lanak egiten hasiko dira. Eta Diputazioaren baime-na lortu bezain laster hasiko dira etxe berriak saltzen.

Herritar ugari elkartu zen martitzenean Etxe Txikien inguruan, Txaparoren etxea eta Barrenatxo etxea zela eraisten zitezten ikusteko. Mende hasierako etxeak ziren haiek, Etxe Txikien baino lehenagokoak. Orain, lekua utzi dute Gelman eraikiko dituzten etxe berriendako.

Martitzenean bertan hasi eta bukatu zuten aipatutako etxe biak eraisten. Hortik aurrera, Gelmaren lantegi zaharrak, biltegia eta barruan dagoen zubi bat eraitsiko dituzte, besteak beste. Eraiste lanek hilabete eta erdi inguru iraungo dutela esan digute. Eta horren ostean, irailen-edo, hondeatze-lanak egiten hasiko direla.

Gelmaren eraikin nagusia, berriz, bere horretan utziko dute, Gelmaren eraikin adierazgarria da-eta. Horrekin batera, ertzain etxea ere bere horretan utziko dute. Baina beste inguru guztiguztia, 47.000 metro koadro pasatxo, eraldatu egingo da zeharo.

Obenerreka enpresa sustatzaileak egingo ditu lanak guztiak. Hain zuzen ere, datorren uztailaren 15ean zabalduko dute bulegoa, etxeotarako izenak emateko. Gelmaren eraikin nagusiaren beheko aldean dago.

PRIBATUAK ETA PUBLIKOAK

Etxe asko eraiki behar dituzte Gelman: 321 sustapen pribatukoak eta 125 sustapen publikokoak. Edozelan ere, etxeak eraikitzen hasi eta gero, etxebizitza kopuruari dagokionez aldaketa txikiren bat izan daiteke. Esaterako, Arrasateko Egitamu Orokorrarekin bat egin, aukera dute babes ofizialeko etxebizitza kopurua 131raino handitzeko. Eta sustapen pribatuko etxebizitzetzi dagokienez, berriz,



Martitzenean hasi ziren eraiste lanekin; Txaparoren etxea eta Barrenatxo etxea bota zituzten; orain, Gelmako lantegi eta bestelako eraikinak botatzen segituko dute.

337 egin ahal izango dituzte. Jakinarazi digutenez, etxeen planoak egiten dabilta orain.

Bestelako datuak esatearren, aurreikusitakoaren arabera, 34.600 metro koadro pasatxo sustapen pribatuko etxebizitzak egiteko erabiliko dituzte. Babes ofizialeko etxebizitzetarako, berriz, 12.500 metro koadro izango dira.

Babes ofizialeko etxebizitzek zerrendak enpresak ditu; eurek deituko diete interesdunei

LAU ERAIKIN EGINGO DITUZTE

Udalean duten hasierako dokumentuen arabera, lau bloketan eraikiko dituzte etxebizitzak. Sustatzaileek jakinarazi digutenez, babes ofizialeko etxebizitzek blokea hasiko dira egiten; eta horrekin batera, ertzain-etxetik gertuko blokea eraikitzen hasiko dira; sustapen pribatuko

etxebizitzak dira horiek.

Hortik aurrera, etxeen salmentaren eta lanean jardungo duten gremioen arabera eraikiko dituzte gainerako blokeak.

Babes ofizialeko etxebizitzek blokea Gipuzkoa etorbideari begira egingo dute. Eta sustapen pribatuko etxebizitzek lehen blokea Txaparro eta Barrenatxo etxeak zeuden lekuan eraikiko dute.

BESTELAKO ELEMENTU BERRIAK

Etxeaz gainera, 89 bat aparkaleku sortzea aurreikusi dute; horrez gainera, eraikinen erdialdean plaza bat egingo dute eta erreka ondoan bide berria. Hain zuzen ere, Gipuzkoa etorbidea eta erreka bazterreko bidea lotzen, oinezkoendako pasealeku bat egiteko asmoa dute. Halaber, biribilgune bat ere eraikiko dute eta hark lotuko ditu Gipuzkoa etorbidea, Santa Marina kalea eta Gelmaren barruko aldera sartzeko kale berria.

Datu esanguratsuenak

Guztira, 446 etxebizitza eraikiko dituzte: 321 sustapen pribatukoak eta 125 babes ofizialekoak. Dena dela, kopuruak handitu egin daitezke, eta sustapen pribatuko 337 etxebizitza eta babes ofizialeko 131 eraiki ahal izango dituzte. Guztiak lau bloketan eraikiko dituzte. Hala, 34.619 metro koadro izango dira sustapen pribaturako eta 12.500 sustapen publikorako. Etxebizitzek prezioak azken unean zehaztuko dituzte.

Babes ofizialeko etxebizitzekin lotutako zerrendak Obenerreka enpresa sustatzailearen eskuetan daude eta eurak arduratuko dira interesdunei deitzearekin.

89 aparkaleku eraikiko dituzte. Plaza bat eta oinezkoendako pasealekuak eraikiko dituzte. Biribilgune bat ere bai.

Gelmako eraikin nagusiari erabilera publikoa emango diote.

Irailen hasiko dira lursaila prestatzeko hondeatze-lanak egiten.

ELKARRIZKETA

ESTEBAN UMEREZ/ABOKATUA

“Aldarrikatu behar dena da euskararen erabilera normala eta normalizatua”

ARRASATE IRRATIA / UBANE MADERA

Bada elkarte berri bat Euskal Herrian, justizian euskararen erabilera defendatzen duena. Arrasateko seme Esteban Umerez da elkarte-ko presidente. Harekin berbetan izan gara, justiziak euskararekin duen harremanaren gainean:

Justizia Euskaraz izeneko elkarte sortu duzue, euskarak epaitegiaren bizi duen egoerarengatik...

Zuzenbidean eta Justizian gabiltzan profesionalak garenez, gure eguneroko lanbidearen egoerak eta gure euskararen inguruko ardurak elkartzen gaitu. Nor bere alorrean saiaturiko gara Zuzenbidean dakigun apur horretatik baita ere horretan lan egiten eta aldarrikapen horretan bultzakada ematen.

Oraingo 40 kide dituzue baina elkarte berria da, azken asteotan sortutakoa, ezta?

Bai. Joan zen urtean egin genituen sorrerarako behar diren ekintzak eta tramitazioak, baina bai, orain astebete aurkeztu dugu eta orain arte egindako sorrera lan hori oraintxe gauzatzen hasi gura dugu.

Euskal Herri osoko epaile, abokatu, prokuradore eta erregistratzaileak zaudete?

Hasieran gauden 40 horiek gara: abokatu, prokuradore, unibertsitateko irakasle eta epaileak, euskaldunak guztiak. Eta gauden, batez ere, Bizkaia eta Gipuzkoakoak. Baina zabaldu egin gura dugu, gure elkartearen lan eta lurralde eremua Euskal Herri osoa dela zehaztu dugulako eta Zuzenbideko profesionalen lanbide gehienetara iritsi nahi dugulako; hortxe sartzen dira notarioak, erregistratzaileak, lehen aipatu dituzun idazkari judizial eta fiskalak... Dauden euskaldunak gurako genuke gure proiektu honetara ekarri.

Basamortutat jo duzue euskararen presentzia justizia arloan...

Halaxe da. Ezin dugu ahaztu euskara eta gaztelera, ofizialak direla biak EAEn eta Nafarroako zati handi batean, eta ofizial-kidetasun hori ez dela inondik inora betetzen. Gutxienez, oso zaila da epaitegi batera euskara erabilita joatea eta gehienetan oztopoak eta eskubideen urraperak sortzen dira horregatik. Zergatik? Ez dagoelako nahikoa (eta leku batzuetan bat ere ez) epaile eta idazkari judizial euskaldunak. Nire ustez horiek dira Justizian dauden eragile garrantzizkoenak; azkenean epaileak hartzen ditu erabakiak eta euskaldunok behar dugu zuzenean epailearengana



ESTEBAN UMEREZ

“Hizkuntza da tresna nagusiarena eztabaida eta erabaki juridikoendako”

jo eta zuzenean hari euskaraz egin edo idatziz edo berbaz, eta hark zuzenean gu ulertu eta guk esandakoaren arabera erabakiak hartzeko gai izatea. Eta horretarako modurik ez dago.

Tartean itzultzaileen behar barik?

Egon badaude, eta hor ere akaso hutsuneak eta egon daitzke, itzultzaile kopuruan edo euren gaitasunean. Neuk beti esaten dut itzultzaileek, daudenek ikaragarritzko ahalegina egiten dutela eta sekulako lan ona egiten dutela eta hori aintzat hartu behar dugula, eta ezin diogula muzin egin euren lanari. Eta gure ametszko panorama horretan ere, epaile guztiak euskaldunak eta idazkari judizialak euskal-

“Beharrezkoa da mezua igorri eta mezua jasotzen dutenen artean mugarik ez izatea”

dunak eta Justizia euskalduna izango den ametszko panorama horretan ere, itzultzaileak behar-ko dira, egongo delako norbait euskaraz ez dakiena eta itzultzailea behar duena. Baina argi izan dezagun ez dugula guk itzultzaile behar, euskara ez dakienak behar duela guri ulertzeko, eta alde horretatik, zela gure burua ulertarazi gura dugun eta gaur eguneko egoera den modukoa den, hobe itzultzaileekin batera lan egitea eta euren lana aintzat hartu eta euren lan txukuna ere bultzatu, nahiz eta ez den hori gura dugun behin betiko egoera, behin-behinekoa baino. Berez, itzultzaileak berak egotea traba jartzen du mezu juridikoan eta dagoen eztabaida juridikoan.

LABUR

Udaltzaingoak ematen duen zerbitzua hobetzeko ikastaroa antolatu du Udalak

Bi helburu ditu Udalak: Udaltzaingoaren kalitatea hobetu eta Udaltzaingoaren gaineko informazioa herritarrei helarazi. Eta horretarako, ikastaroa antolatu du, Euskaliten bitartez. Ia 12.000 euro inbertituko dute. Hala, besteak beste, Udaltzaingoaren Zerbitzu Karta zehaztuko dute. Hau da, egiten dituzten lanik garrantzitsuenak zehaztuko dituzte, zein herritar motari zuzendutakoak diren eta zerbitzu horien erabiltzaileei eskaintzen dioten kalitatea aztertuko dute. Modu horretan, besteak beste, herritarrek argi jakingo dute zein den Udaltzaingoak eurekiko duen konpromisoa.

‘Oporrak Bakean 2005 Euskal Herria’ jaia, Arrasaten

U.M.

Uztailaren 17an jai berezia egingo dute: Saharako kanpalekueetatik EAera datozen umeekin, haiek hartu dituzten gurasoekin eta begiraleekin. Nafarroakoak eta Kantabriakoak ere gonbidatu dituzte.

Hala jakinarazi digu Saharako errefuxiatuen alde lanean diharduen NUBI elkarteak. Uztailaren 17an egingo dute eta EAera datozen 461 umei, haiek hartu dituzten gurasoei eta elkarrekin begiraleei dei egin diete etortzeko. Baita ere Nafarroara eta Kantabriara joango diren umeak eta gurasoak ere. Iaz egin zuten halako jai antzeko bat, Lekeition. Baina aurtengoa handiagoa izango dela iragarri digute.

ARRASATERA, 12 UME

Hori baino lehen, baina, aurtengo udan Arrasatera etorriko diren umei ongietorria egin beharko zaie. NUBI elkarteak Agurte Juldainek jakinarazi digunez, uztailaren 9tik 11ra bitartean iritsiko dira umeak Arrasatera. Iaz

moduan, aurtengo ere 12 neska-mutiko etorriko dira. Horien artean, batzuk (zazpi edo zortzi) lehenagotik etorri izan diren neska-mutikoak dira. Gainerakoak, berriak.

Agurte Juldainek esan digu Udalararekin elkarlanean dabiltzala umeak hona ekarri eta hemen zaintzen laguntzeko. Gaineratu digu NUBI elkarte arduratuko dela familiekin koordinatzen.

KONTZIENTZIAZIO HANDIAGOA

Bestalde, Marokon orain bizi duten egoera latzak Oporrak Bakean programan eragina izan duela ere kontatu digu NUBI elkarteak: “Igarri dugu orain arte inplikatu ez den jendea inplikatu egin dela. Arrasaten ez dugu aldaketarik izan programan, baina adibidez Oñatin, orain arte nork ez du parte hartu eta aurtengo bi familiak eman dute izena”.

Horren harira, zera esan digu familiaren bat umeren bat hartzera animatzen bada, oraindik baduela aukera. Horretarako, deitu: 685 72 48 16/17/18 telefonora.



Iaz etorri ziren neska-mutiko batzuek errepikatua egingo dute esperientzia aurtengoan.



Udalak behar dituen bi baldintzak betetzen ditu Maisu Aranoko lokalak: erdigunean egotea eta Udaletxetik gertu.

U.M.

Udala Kutxarekin negoziatzen, arreta zerbitzua Maisu Aranon ipintzeko

U.M.

Kutxak Maisu Aranon zituen bulegoen lokala eskuratu gura du Udalak. Asmoa da han ezartzea herritarrendako arreta bulegoa. Udaleko tramite gehienak zentralizatu gura dituzte bulego hartan. Lokal hura erosteko kreditu aldaketa egin beharko du Udalak.

Leihatila bakarra ipini gura du Udalak, herritarrei Udaleko tramiteak egitea errazteko. Besteak beste, dagoeneko egin du arreta zerbitzu horren arduradun lanpostua betetzeko deialdia. Hain zuzen ere, barne promozio bitartez hornituko dute lanpostua; hau da, dagoeneko Udaletxean lanean diharduen langileren batek beteko du.

BULEGOA, ZENTROAN

Orain, berriz, zerbitzu hura emateko lokala erosi, egokitu eta hornitu egin beharko du Udalak. Bi ezaugarri bete behar ditu lokal horrek: erdigunean egotea eta Udaletxetik gertu. Hala, bada, bi baldintza horien arabera dauden alternatibak aztertu ditu Udalak. Itxura denez, erdigunean ez dago aukera handirik. Eta daudenen artean egokiena da Maisu Aranoko behe solairua da, orain dela

gutxira arte Kutxak bulegoak zituen lekuan. Erdigunean eta Udaletxetik gertu egoteaz gainera, Udalaren intereserako toki aldetik behar bezain handia da eta, gainera, lehenago ere bulegoetarako erabili izan dute; hortaz, egokitzeko ez dute obra handirik behar.

KREDITU ALDAKETA

Horregatik guztiagatik, 2005erako aurreikusitako kredituetan aldaketa egin beharko du Udalak, Ondasun Patrimonialaren Erosketa izeneko diru partida handitu, eta, hala, Portaloiko lokala erosteko. Hain zuzen ere, ekainaren 27ko osoko bilkuran landuko dute kreditu aldaketa hori. Edozelan ere, dagoeneko Udala eta Kutxa hasi dira lokalaren erosketarako negoziazio prozesuarekin.

Erdigunean ez dago aukera handirik Udalak behar duen moduko lokala erosteko

Uztail hasieran iritsiko da herrira Leze Txikiko indusketa taldea

U.M.

Uztailaren 4tik 23ra bitartean izango da Arrasateko Leze Txikiko indusketa lanak egitera etorriko den gazte taldea. 16-17 bat lagun etorriko dira. Iaz ekindako lanarekin segituko dute. Arduradunak adierazi digunez, helburua da kobazulo goiko aldeko indusketa bukatu ahal duten ikustea.

Urtero moduan, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kide Alvaro Arrizabalagaren

zuzendaritzapean izango da Leze Txikiko indusketa taldea. Hark esan digunez, oraindik zerrenda itxi barik dagoen arren, 16-17 bat gazte etorriko dira aurtun Arrasatera. Leku askotatik etorriko dira, gainera: EHUtik, Nafarroako Unibertsitateetik, Madrilgo Complutensetik, Alcalá de Henaresko unibertsitateetik, Leondik, Salamancatik eta UNEDetik.

Txandaka, hiru astean jardungo dute Leze Txikiko indusketa arkeologikoa egiten. Hain zuzen ere, Alvaro Arrizabalagak azaldu digunez, kobazuloko bi gune-

tan dabilta lanean azken urteotan, kobazuloaren goiko partean eta apur bat beheago dagoen beste zulo batean: "Aurtun, helburua da ikustea ea beste urte pare batean bukatu ahal dugun goiko aldeko indusketa-lanekin".

BIZI, UDALAN

Eta azken urteotan moduan, aurtun ere, Udalak Ingurumen Eskola doan erabilzeko baime-na emango die Udalak gazteei, Arrasaten dauden bitartean han bizitzeko: "Ezin dugu ahaztu taldeak egingo duen lana herriaren mesederako dela".

Monterron parkea egokitzeko proiektua esleitu dute

U.M.

Ikaur SL enpresari esleitu diote Monterron egokitzeko proiektua idazteko laguntza teknikoak. Bost hilabete eta erdiko epea eta 20.880 euroko aurrekontua dute. Parkeko zenbait gune birdiseinatu egingo dituzte.

Honako hauxe diseinatu beharko dute: parkerako sarrera nagusia, parkeko pasabideak eta bidexkak eta lorategiz hornitutako guneak. Horrez gainera, gaur egun dauden putzuak eta iturriak egokitu egin beharko dituzte. Bestalde, eske-

natokia berritu egingo dute eta, oro har, azpiegitura guztiak berrituko dituzte: euri-urak batzekoak, seinaleztapena, argiteria, kaleko altzariak eta bestelakoak.

Hori guztiori egin gura dute parkean dauden zuhaitzak eta landareak ukitu barik eta gaur egun parkeak duen konfigurazioa askorik aldatu barik. Halaber, oro har, helburua da Monterron parkearen kalitatea hobetzea, aisialdirako zein herritarren egonaldirako.

Lehen esandako moduan, bost hilabeteko epea eta 20.880 euroko aurrekontua dute esleitutako lanak bukatzeko.

Biterin eta Otalora kalean lanak egiteko laguntza eskaera

U.M.

Merkataritza Indartzeko Plan Bereziak aurrera eramateko dirulaguntzen barruan, Biteri aparkalekuko azalera urbanizatzeko eta Otalora Lizentziaduna kalean igogailua jartzeko laguntza eskatu du Udalak.

Jaurlaritzaren Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeari eskatu dizkio Udalak laguntzok. Arrasateko Merkataritza Indartzeko Plan Berezien artean, Udalarendako garrantzitsua da Biteri aparkalekuaren goiko aldeak itxura ona izatea, "Arrasate

erdialdeko merkataritza-gune irekiaren ate" izango delako leku hura. Hala, huraxe urbanizatzeko laguntza eskatu dio Jaurlaritzari. Hain zuzen ere, 1.615.017,04 euro behar ditu lanok egiteko.

Horrekin batera, Otaloran herriko goiko auzoei lotura emateko igogailua jartzeko proiektua ere aurkeztu dio Jaurlaritzari, laguntza eskatzen. "Herriaren goiko auzoak erdialdeko merkataritza-guneekin lotzera zuzendutako eskuharmena" da hori, Udalaren esanetan. Kasu horretan, 681.336,56 euroko aurrekontua du proiektuak.

LABUR

Zenbait auzo eta lekutan segurtasun hesiak ipintzeko proiektua onartu dute

Auzoetako alkateek eskatuta, Bedoña eta Meatzerreka auzoteako baserri batzuetako zenbait gune eta Musakolako Oxina zubia babes-teko asmoarekin erabaki du Udalak segurtasun hesiak ipintzea. Hain zuzen ere, Meatzerreka auzoko Etxaldeberri eta Ugaldeazpi-Ugaldegain baserrietako bidea, Bedoña auzoko Artea eta Bio-so baserrietarako bidea eta Musakola auzoko Oxina zubia. 12.017,60 euroko aurrekontua dute horretarako.

Mugika ehorztetxearekin hitzarmena sinatu du Udalak, errausketa zerbitzua emateko

Arrasateko Udalak eta Mugika ehorztetxeak hitzarmena sinatu dute bigarren urtez. Helburua da San Kristobal hilerriak eskaintzen duen errausketa zerbitzuan aberiaren bat bada, herritarrek ez geratzea zerbitzu hura barik. Hain zuzen ere, hitzarmen horren bitartez, Mugika ehorztetxeak eskainiko luke errausketa zerbitzua. Udaleko zerbitzu teknikoek emandako azalpenaren arabera, "Funeraria Mugika SL enpresa aukeratu da Arrasatetik gertu errausketa labe bat duelako eta hitzarmenean proposatutako prezioak onartu dituelako".

Mendiko orientazioaren gaineko ikastaroa egingo dute Emakume Txokoa

Ekainaren 30ean bukatuko da mendiko orientazioaren gaineko ikastaroan izena emateko epea. Ikastaroa bera uztailaren 5ean, 7an eta 9an izango da, 18:00etatik 20:00ak arte, Emakume Txokoa. Argibide gehiagorako: 943 79 14 39.

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 17**
Ruiz.Maala 31..... 943 79 14 09
- ZAPATUA, 18**
Zabala. Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- DOMEKA, 19**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 20**
Azkoaga. Iturriotz 17..... 943 79 79 99
- MARTITZENA, 21**
Corcuera. M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 22**
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUENA, 23**
Amezua. Santa Marina 32..... 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 24**
Español. Araba etorb. 14..... 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Igalatorioa..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Deiak..... 112
Gurutze Gorría..... 943 76 55 76
DYA..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astelhehenetik
egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelhehenetik
egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak..... 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea..... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak..... 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza..... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron..... 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 (meza nagusia (euskaraz))
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:00 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
20:00 (euskaraz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (elebiduna) |

OHARRAK

TXATXILIPURDIKO EKINTZAK
Ekainaren 29tik uztailaren bukaera arte Txatxilipurdik hainbat ekintza egingo ditu herrian: txangoak, tailerrak, film emanaldiak, afariak... Interesatuak jo lehenbailehen Txatxilipurdiren egoitzara (Pablo Uranga kalea).

'TXUMA'-RI OMENALDIA
Gaur, egubakoitza, Igor Eizagirre Txuma-ri omenaldia egingo diote 3.60 aretoan. Uek eta leon taldeek kontzertuak egingo dituzte, 22:30ean.

ABAROAKOAK BARTZELONARA
Irailaren 10etik 24ra bitartean, Abaroako lagunak Susana-Malgratera (Bartzelona) joango dira. Interesatuak 325 euro ordaindu beharko dituzte. Izenematea ekainaren 13tik 24ra arte izango da.

ABAROAKOAK KANTABRIARA
Abaroako lagunak Kantabriara txangoa egingo dute ekainaren 22an. Interesatuak eguaztenean, hilaren 15ean, eman beharko dute izena. Zozketa hilaren 20an egingo dute.

FUNKY ETA JAZZ KONZERTUA
Bihar, zapatua, El Quinteto de la Muerte eta The Gaupasa Kings taldeen kontzertuak 3.60 aretoan.

AEDrenAGENDA

SAN JUANETAN, DRAGOI JANEAN LAN EGITEKO DEIALDIA
AED elkarteak deialdia egin du herritarrek ekainaren 24an, Dragoi Janean, lan egin dezaten. Interesatuak jo dezatela AEDra.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.


Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.


ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Egunkaria IV. Jaiak, arrakasta handia

Milaka lagun batu ziren Arrasaten Egunkaria IV. Jaian. Eguna lainotuta hasi zen, baina arratsaldea eguzkitsua izan zen. Antolatzaileen esanetan, 20.000 lagun baino gehiago batu ziren, eta marka guztiak hautsi zituzten. Denetariko ikuskizunak egin zituzten egunean.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Likina, itsaskorra.
— Bietzak lika-lika eindra geldittu jat elauakin.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 10	6 °C
MAXIMOA Zapatua, 11	31 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	7,5 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 8	26 °C 10 °C - l/m²
Eguena, 9	28 °C 7 °C - l/m²
Egubakoitza, 10	29 °C 6 °C - l/m²
Zapatua, 11	31 °C 11 °C 5,4 l/m²
Domeka, 12	30 °C 14 °C 1,7 l/m²
Astelehena, 13	25 °C 16 °C 0,4 l/m²
Martitzena, 14	24 °C 13 °C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Araba Euskaraz jairako gonbidapena egingo digute, besteak beste, 'Asteko Gainbegiratu'-n

Hirugarren aldiz, Amurrión, Aresketa ikastolaren aldeko jaiak izango da domekan, hilaren 19an. Astean, aurtengo koordinatzaile Anjel Olalderekin izan gara. Jaiaren nondik norakoak gainean galde-tu diogu eta bide batez, Arabako ikastolen aldeko jairako gonbidapena jaso dugu.

Asteburuko hitzorduan berreskuratuko ditugu Olaldeko kontatutakoak. Horretaz gain, meteorologiaren geltokian, haizea berba izango du Pello Zabala adituak.

AZKEN IBILBIDEAK

Datorren astean, 107.7ko autobusak aurtengo ikasturteko azken ibilbideak egingo ditu, eta garaje gordeko dugu behin hori eginda. Urria bitartera arte atsedena hartu beharko du gizajoak.

Igo Autobusera! magazinaren lekukoa, berriz, *Uda Giroan* saioak hartuko du azken urteotan moduan, ekainaren 27tik aurrera.

Hala ere, ez ahaztu, egubakoitzean San Juan eguna izanda, jaietako saio berezia egingo dugu la 107.7an.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu:** Anjel Olalde, Araba Euskaraz 2005eko koordinatzailea; Pello Zabala, haizea berba; Esteban Umerz, abokatu; Alfonso Gorroño goitia, kooperatibista mugimenduen sortzaileetarikoa...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu.**
- ASTELEHENETIK EGUENERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
Parte hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:35 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- EGUBAKOITZA**
10:30-13:00 **SAN JUAN JAIK SAIO BEREZIA.**
- 15:00 **SAN JUAN JAIK (errep.)**

KALEINKESTA/ Hirugarren Munduko lurralde batzuei deudie edo zorra parkatu dutzie; nahikue da?



ROSA FERNANDEZ
Langillie

Hori baiño gehixau egin biherko leukie. Zorra parkaketie ondo dau, baiñe gosiek hiltzen jarraituko daue, eta egin biher dana da medixuek emun, hobeto bizi izeteko.



IGNACIO DE LA FUENTE
Langillie

Egin dana ondo dau, baiñe gutxi dala pentsetan dot, hori minimue zan. Uste dot, gaiñera, horrein zor horrein interesetan diru mordue gastetan euela. Egongo da nunbaitteko interesen bat.



JOSE JULIO HERIZ
Langillie

Pauso bat emun daue, baiñe beste pauso batzuk be emun biher die. Bestela, segituen sortuko daue zor haundixae. Argi dau mundu erdi ezin dala ondo bizi, beste erdixe txarto dauenien.



AINARA GOMEZ
Ikaslie

Ez da nahikue, nahiz eta egin dauena ondo ikusten doten. Horrekin apur bat egin da, baiñe hango lurraldiei desarrolletan lagundu biher dutzeu. Zorrak kentzie gutxienekue da.



IZASKUN URIBESALGO
Langillie

Zorra barkaketie oin dala urte asko egin biherrekue zan, baiñe ez da nahikue; piramideko lelengo oiñarrixe da hori. Ondiokan be, beste gauza asko geraketan die egitteko.



IBON MADARIAGA
Ikaslie

Ez dot pentsetan nahikue danik. Horreik lurralde horreik desarrolletako infra-estruktura aldetik oiñarrixe biher daue; hori lortzeko egin biherko geuke lan. Dana dala, notizia ona da.

USTEAKUSTE

Misterioak

Mundua misterioz beteta dago, eta arlo askotan zalantzak pizten zaizkigu uneoro. Adibidez, orain dela gutxi jakin dut uztailearen 4an *Deep Impact* izeneko gertaera izango dela. Kontua da NASAk espazio-zunda bat bidali duela espaziora Tempel 1 izeneko kometarekin talka egin dezan. Elkartze hori San Ferminen aurretik izango da, aipatutako egunean, eta ekimenaren helburua da kometak zer osatzen dituzten jakitea. Dirudienez, oraindik ez dute jakiterik izan kometak inguruan daukan izotza urez edo beste elementu batzuek osatuta dagoen, esaterako.

Danbateko hori eman aurretik -kometak izugarritzko tamaina dauka-, espazio-zundatik beste zunda bat irtengo da gertaeraren lekuko izateko.

Oso bitxia iruditzen zait kontu guzti hori: zer gertatuko den, kometa zer elementuk osatuko duten eta batez ere zelako ahalegin eta diru mordoa gastatuko zituzten horretan.

Baina ez dago urrun joan beharrik misterioekin topo egiteko. Ikusi bestela Donostiako Errotaburu dorrean gertatutakoa. Aldundiak eta Barne Sailak diote guztiaren errua hilik agertu den bigarren zaindaria dela, baina itxura guztia dauka hor atzean norbait boteretsua dagoela.

TXALOKETATXISTUAK



TXALOK UDALTZAINEI Herriko erretiratu talde batek eskatu digu udaltzainei -batez ere Zigor udaltzainari- eskerrak emateko, erretiratuaren elkarrekin egin dituzten berbaldiengatik. Berbaldi horiek bide hezkuntzaren gainekoak izan dira eta herriko erretiratuaren lau elkarrekin eman dituzte. "Udaltzainek esan digute istripuak izateko arrisku handien daukaten adin taldeak umeak eta erretiratuak direla, eta asko eskertzen diegu egin duten ahalegina. Hainbat argibide eman dizkigute", azpimarratu dute.

ASTEKODATUA

681.336

EURO KOSTATUKO DA OTALORAKO IGOGAILUA

Otalora kalean goiko auzoei lotura emateko igogailua jartzeko proiektua aurkeztu dio Udalak Eusko Jaurlaritzari. Horren bidez, goiko auzoak erdialdeko merkataritza-guneekin lotu gura ditu Udalak. 681.336,56 euroko aurrekontua dauka.

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga



Orratzak

Inoiz pentsatu izan dut bidaiatzea ihes egiteko bide bat izan dela. Hori sinestarazi didate maiz inguruan izan ditudan lagunek. Inoiz, seguruenik, arrazoia izan dute; baina orain ez dut funtsezko ardatz gisa ikusten. Bidaiatzeari ekin nion lehenengo aldi hartan, 14 urteen inozentziak besterik ez ninduen laguntzen. Ez zen bidaia luzea izan; aldiz, nire burua ezagun eta babesgune bakaniz nuen. Lasterketaren hasiera izan zen hartutako hegazkin hura. Baina lasterketaren helmuga aldatzen du lastertutako kilometro bakoitzak, eta ezin izango nuke baieztatu hemen edo han aurkitzen naizen gaur.

Leku bakoitzean eskaintzen zaidan argia da energia iturburu nagusia, ez dira paisaiak hutsean, ezta aberastasun materialak ere, aldi bakoitzean zerbait ezberdinak elikatzen nau, berrindartzen nau.

Indar horietako bat indartsu sumatu nuen egindako

azken bidaian. 30 urte inguruko Europa iparraldeko gazte baten hausnarketek txunditu ninduten/gintuzten. Bere lasterketarako beharrak, motibazioak, desioak, beharrak, jarrerak... beste sakontasun batekoak ziren, ulergaitzak nire orain arteko lasterketa pertsonaletik.

Gure ipar, hego, ekialde eta mendebalde kontzeptuei beste batzuk gehitu zizkion, eta iparrratzen balioa zapuztu zigun. Besteak beste, horrelako oharretan maila izan nahiko nuke, existentzia horren ulertzera heldu gurako nuke. Eta horregatik, ezin naiz gaurkoaz geratu, ezin naiz ikusitakoez eta ulertze mugatu honekin konformatu.

Ez dakit zenbat kilometro dauden aurretik nire beharretan. Ez dakit bidaiatzearen nire lasterketa propioak azken helmuga bat eskainiko didan, edo lasterketa, halako baten, bertan behera utziko dudan adinaren ondorioz. Aitzitik, ez dut babesean lo hartu nahi.

"Lasterketaren helmuga aldatzen du kilometro bakoitzak, eta ezin izango nuke baieztatu non aurkitzen naizen"

IKER BARANDIARAN

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

UDA KANPAINA/ Zapatuan irekiko dituzte kanpoko igerilekuak

Seiehun lagunendako kirol programa prestatu du AUKEAK, uztailerako

XABIER URTZELAI

Urtero moduan, aurten ere AUKEAK udako kirol kanpaina prestatu du uztailerako, eta seiehun lagunendako ekintzak antolatu dituzte. Ekainaren 27tik uztailearen 8ra arte egingo dute lehen txanda, eta uztailearen 11tik 22ra bigarrena.

Jakin, 13 kirol modalitate izango direla aukeran: arku tiroketa, multikirola, patinajea, esku pilota, tenisa, eskalada, spinninga... Eta jakin, baita ere, kirol modalitate bakoitzean izena emateko plaza mugatuak egongo direla. Talde gehienak 8-12 lagun artekoak dira, baina badaude plaza gehiagoko kirol modalitateak ere; aerobika eta aquagyma, besteak beste (15-25 laguneko taldeak).

EKAINAREN 21A BAINO LEHEN

Kirol eskaintza horietan izena eman gura duenak azkar ibili beharko du, datorren martitzena, hilak 21, izango da eta horretarako azken eguna.

Prezioei dagokienez, gehienak 18 eta 21 euro artekoak dira. Prezio merkeenak bazkideendako izango dira, eta apur bat garestiagoak bazkide ez direnendako. Beste modalitate batzuetan, berriz, apur bat gehiago ordaindu beharko dute; besteak beste, hilabete osoko iraupena izango dutelako. Hauek dira prezioak: aerobika (23,30 bazkideek, eta 29,30 bazkide ez direnek); muskula-

Izena eman gura duenak azkar ibili beharko du, martitzena da izena emateko azken eguna

Udan, igerilekura sartzeko gazteek 2,50 euro ordainduko dituzte; nagusiek, berriz, 5 euro

zio gela (22,60 bazkideek, eta 28,60 bazkide ez direnek); gimnasia erritmikoa (20,85 bazkideek, eta 26,85 bazkide ez direnek); aquagyma, astean bi egun (18,35 bazkideek, eta 24,35 bazkide ez direnek); spinninga, astean bi egun (23 bazkideek, eta 29 bazkide ez direnek); eta erretiratuendako multi-jarduerak (10,05 bazkideek, eta 12,55 bazkide ez direnek).

Informazio gehiago gura duenak 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu.

KANPOKO IGERILEKUAK, BIHAR

Bihar, zapatua, irekiko dituzte kanpoko igerilekuak, eta udako denboraldia hasiko dute horrela.



Besteak beste, izena ematen dutenek eskalada egin ahal izango dute.

Hauek izango dira, bihartik aurrera, kiroldegiko bazkideek igerilekura sartzeko ordaindu beharreko prezioak: gazteek (1984an edo geroago jaiotakoak)

2,50 euro, eta nagusiek 5 euro. Hamar eguneko abonua hartzeko, gazteek 19,50 euro, eta nagusiek 39 euro. Eta, udako abonuari dagokionez, gazteek 28,70 euro ordain-

duta irailaren 11ra arte erabili ahal izango dute igerilekua; nagusien abonua, berriz, 48,10 euro balioko du. Azkenik, 75 euro izango da abonua familiarra.



Berbaldia Monterronen, eta GOITBra gero

Martitzen arratsaldean izan ziren Denonerreal taldeko Miguel Fuentes, Zamora, Inaxio Kortabarria eta beste zenbait lagun Monterronen, euren egitasmoak aurkezten. Gero, talde horretako Luis Ansuategi izan zen GOITBko mahai-inguruan. Santos taldeak, berriz, Edu Malagon izan zen telebista saioan. Eduk esan zuen Santos datorren astean etorriko dela Arrasatera. /X.U.

LABUR

Lizarrustitik Etxegarateraino, Besaidekoek asteburuan egingo duten beste etapa bat

Gipuzkoako Birako beste etapa bat egingo dute domekan Besaideko lagunek. Lizarrustitik Etxegarateraino dagoen tartea egingo dute oinez; ibilaldi hori egiteko, antolatzaileek lau ordu eta erdi edo bost ordu inguru beharko dituztela aurreikusten dute, baina ibilbideak ez du aparteko zailtasunik. 07:30ean irtengo dira Arrasatetik, eta 13:30ak aldera dute itzultzeko asmoa.

Arrasateko Atletismo Taldeak 18 atleta eramango ditu Gipuzkoako Txapelketara

Asteburuan Anoetan egingo duten txapelketan, atleta hauek osatuko dute Arrasateko taldea: 100 metroko lasterketan, Angel Ribera; 200 metroko lasterketan, Remi Diosdado; 400 metroetan, Martin Davila; 800 metroetan, Manu Anguas; 1.500 metroetan, Markel Blanco; 5.000 metroetan, Felix Sanchez; 3.000 metro oztoko lasterketan, Unai Elortza; 110 metroko hesi-lasterketan, Aitor Elortza; 400 metroko hesi-lasterketan, Ibai Irastortza; altuera-jauzian, Jon Ander Amado; pertika-jauzian, Lander Errasti; luzera-jauzian, Iñaki Etxagibel; jauzi-hirukoitzean, Imanol Esperesate; pisu-jaurtiketan, Ibai Jurado; disko-jaurtiketan Mikel Iturbe; xabalina-jaurtiketan, Ander Ansoategi; eta mailu-jaurtiketan, Aitor Urizar.

Horrekin batera, Unai Sarabiak, Remi Diosdadok, Angel Ribera eta Aitor Elortzak osatuko dute 4x100eko laukotea. Eta Manu Anguas, Martin Davila, Ander Ansoategi eta Jon Ander Amado izango dira 4x400 metroko lasterketan.



ARRASATE PRESS

Zaleek diotenez, pazientzia edukiz gero erraza da izarrak eta konstelazioak ikustea.

ASTRONOMIA/ Ilatargi astronomia elkarteak aurkeztu dute

Zeruaren behaketa egiteaz gain, berbaldia egingo dute

IKER BARANDIARAN

Herrian bada astronomia-zalerik. Orain dela urte batzuk, zeruari behaketak egiten hasi ziren, eta San Juanen atarian euren burua aurkeztu gura izan dute. Atzo, eguena, zeruari behaketa egin zioten Laubidetik. Eta martitzenean, berbaldia egingo dute Monterronen.

Elkarteak Ilatargi izena dauka eta lagun gutxi batzuek osatzen dute. "Orain dela bost bat urte, Arrasateko eta Bergarako lagun batzuk hasi ginen tarteka gauez mendira joaten izarrak ikustera. Zoritxarrez, denbora faltarengatik, batzuek utzi egin zioten joateari", azaldu zuen Javier Herrartek.

Kontua da orain dela hiru bat urte berriro ekin zieten behaketei. "Goienkaria-n irakurri genuen Oñatin halako elkarte bat

zegoela, eta eurekin harremanetan jarri ginen. Elkarrekin hainbat berbaldi eta irteera egin ditugu, eta oso gustura gaude".

HILBERRI, TALDE-IRTEERA

Gaur egun, Arrasateko Ilatargi elkarteak dozena bat lagunek osatzen dute. Hilero, hilberria dagoen bakoitzean, talde-irteera egiten dute inguruetara. "Herri barruan argi handia dago. Horregatik, mendi aldera jotzen dugu: Bedoñara, Larrinora... Eta noizbait Gorla edo Jarindora".

Irteera horiez gain, sei-zazpi lagunek sarritan jotzen dute gauez mendira. Horretarako ez dute gauza askorik behar. "Taldeen hainbat lagunek teleskopioak dituzte. Lagungarriak dira, baina ez dira beharrezkoak izarrak eta konstelazioak ikusteko. Edozeinek ikus ditzake". Jabier Herrarteren esanetan, zeruari

behaketa egiteko, tresna garrantzitsuena da *Guía del cielo* liburuxka. "Edozein dendatan aurki daiteke, eta oso merkea da, 3 eurotan saltzen dute. Horrekin ikasi dugu inguruko guztiok".

MARTITZENEAN, BERBALDIA

Atzoko—eguna—ekintzaz gain, berbaldia antolatu dute herritarrek zeruarén gainean gehiago jakin dezaten. Martitzenean, hileren 21ean, Bittor Rodríguez adituak espazioaren esplorazioaren gainean egingo du berba. Monterronen izango da, 19:30ean.

Antolatzaileen esanetan, oso berbaldi didaktikoa izango da. Are gehiago, entzutera joateko ez da beharrezkoa astronomiaren gaineko ezagutzarik izatea. Horrez gain, uztailean eta irailean hainbat ekintza egingo dituzte. Harremanetan jartzeko Jabier Herrarteri deitu (943 79 41 10).

'Txuma'-ri omenaldi heavya egingo diote 3.60 aretoan

I.B.

Orain dela gutxi, Igor Eizagirre *Txuma* gaztea hil egin zen. Haren lagunek omenaldi bat egitea erabaki zuten, eta gaur, egubakoitza, izango da. Horretarako, haren gustuko heavy jaia antolatu dute.

Oso ezaguna zen *Txuma* herrian, eta lagun asko zituen. Hutsune handia utzi du herrian. Lagun horiek guztiak badakite heavy musikaren zale porrokatua zela, eta bere tamainako jaia antolatu dute. Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoa erabiliko dute horretarako. 22:30ean izango da jaia.

KEU-K HIRUGARREN DISKOA AURKEZTU

Ondarroako Keu musikariak Uek proiektuaren hirugarren diskoa aurkeztuko du. Keuk ibilbide luzea dauka musika arloan. Besteak beste, KTI, Psychophony eta Etsaiak taldeetan esku hartu zuen, eta aspaldi honetan Fjord taldeko gitarra jotzailea da. Horrez gain, Uek izeneko proiektuarekin ere buru-belarri dabil. Dagoeneko hiru disko kaleratu ditu: *Uek*, *Uek-Ganbaratik* eta grabatu berri duena. Lehenengo biak Gaztelupeko Hotsak disko-

etxeak kaleratu ditu. Azkena, berriz, Keuk argitaratu du. Musika instrumentala da, baina nabardura handikoa. Diotenez, azkeneko lana, aurkeztuko duena, rockeroagoa da. Zuzenekoetan hainbat musikarik laguntzen diote.

LEKEITIOKO ILEON

Horren ostean, Lekeitioko Ileontaldeak hevyaren, hard-glameraren eta metalaren muturrean dauden kantuak joko ditu. Talde gazte horrek bi disko ditu, eta denbora laburrean kontzertu asko eman ditu. Lehenik eta behin, *Begi itxien amildegia* eta *Justiziaren kiratsa* disko indartsuetako kantuak joko dituzte.

Horren ostean, Keu gitarra jotzailearen laguntzarekin, heavy talde ezagunen bertsioak joko dituzte. Jaia bukatzeko, Fatty eta Danzig-ek musika jarriko dute.

JAZZ MODERNOA, FUNKYA...

Bihar, zapatua, Ortophonk talde ezagunean esku hartzen duten musikari batzuek kontzertua egingo dute. Horretarako, bi talde ekarriko dituzte: El Quinteto de la Muerte eta The Gaupasa Kings. Jazz modernoa, funkya, musika latindarra... egingo dute.



OIHUKA

Gaur, egubakoitza, hainbat taldek kontzertuak egingo dituzte. Argazkian, Ileon.

PUB HAIZEA

arrasate

Gorka ilepaindegia peluqueria

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETAK

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

BOTEPRONTUEN

Leire Blanco

XABIER URTZELAI

Leirek bederatzi urte egin dau barra atzien lanien, berak esaten dauen moduen, "bizi dana". Eibartar horrek urte eta erdi dala hartu euen kafeterixako ardurie. Ordura arte, hara eta hona ibilli da.

Barra atzien egotiarren itxi zeuen ikasketak.

Bai, asko gustetan jaten barra atzien lan egittie. Batxilleratue egin neuen, baiñe ez neuen selektibidadie egin.

Eta nun ibilli zara lanien?

Eibarren, Zarautzen, Ibizan, Bermeon... Leku askotan.

Zelako lekuek zien?

Oso diferentiek zien: uniformie eruen biher neuen kafeterixie, tabernie, hondartzako txiringitue, diskotekie, *after*-a...

Eta nun gustoren?

Ba kuriosue izengo da, baiñe *after*-ien egon nitzen gustoren. Goixeko seiretan zabalke-tan geuen, eta oso rollo ona euen, baitte jefiekin be.

Hilbehera kafeterixie. Gabez egitten dozuelako lan?

Ez, lehen be holaxe euken ize-



na, eta ez geuen aldatu.

Baiñe, illetargixe ilbeheran dauenien, hatxe barik egoten da.

Hamen ez, hamengo Hilbeherak bi hatxe dauko. (Barre)

Noix ibiltten da kafeterixan jente gehixen?

Goixien 06:00retan zabalke-tan dou, eta leleno orduen jentie armozetan etorten da. Eta atsaldetan be ibiltten da jentie.

HILBEHERA KAFETEGIA

Gaiñien daukou San Juanak. Igerriko dozue?

Geuk ez, kaletik urrundute gauzelako. Egixe esateko, herriko eta auzuetako jaixetan ez dou lan haundixaurik eukitten. Unibersidadeko jaixen igerri geuen zeozer, baiñe bestela, trankil ibiltten gare.

Ze da zeuon laneko gauza txarrena?

Goix jeiki biher doule.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Gauzak maittasunekin egittie. Bestela, kafiek urtetan dau txarra, kubatak txarrak...

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Las normas de la casa de la sidra / Es fácil dejar de fumar, si sabes como nabil leiduten. Oin dala bi urte leidu neuen, eta hillebete egon nitzen erre barik. Oin, baiñe, doblie erreten dot / Chambao.

Kapritxo bat.

Neure kotxie da dauketen kapritxue. 35 urte daukon Volkswagen Eskarabajue dauket. Erregalue izen zan, eta oin geldi dauket kotxie, baterixie ez dabil-eta bape ondo.



Lirain osatzen duen taldeak, San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue!


LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA



TXAPELKETA IRABAZITA, MEREZITAKO AFARIA

Zaldibarko Txapelketa amaituta, finalera heldu ziren bi taldeak antolatzaileekin batera izan ziren zapatuan, urteroko afaria egiten. Sara jatetxean afaldu zuten, eta antolatzaileek azpimarratu gura izan dute giro ezin hobea izan zela. Beste urte batzuetan ez moduan, zapatuan bi taldeetako jokalariek batera egin zuten parranda. 60 lagun inguru joan ziren afaltzera, eta guztiak ibili ziren gero kalean. Kontatu digutenez, finaleko jokalaria onena izendatu zutena eguerdi partean iritsi zen etxera. Merezita, bazeukan zer ospatu.



ARRASATEKO GAITARIAK, ERRITMOA HARTZEN JOATEKO, 'MARE NOSTRUM' JAIALDIRA

Arrasateko gaitariak jo eta ke ibiliko dira San Juanetan, baina ondo entrenatuta daude, joan den maiatz amaieran Balear Uharteetan izan ziren-eta. Urretxuko Lurra Dantza taldekoekin batera joan ziren *Mare Nostrum* jaialdian esku hartzera. Ez ahazteko moduko asteburua izan zuten. Zapatuan, Formenteran izan ziren, eta Eivissara (Ibiza) joan ziren domekan. Besteak

beste, Arabako Eltziegoko kantuarik eta Otsagabiko (Nafarroa) kantuarik jo zituzten. Kantuez eta dantzez gain, uharte horietan egindako egonaldia ondo aprobetxatu ei zuten. Datorren astean, berriz, gaitariak Formentera eta Ibiza uharteak, besteak beste, Otalora eta Iturriotz kaleengatik ordezkatu dituzte. Seguru zuek ere Iturriotz eta Otalora dituzuela gurago, ala?



ARGAZKIKO LAU GAZTE HORIEK BIHARKO HAURREN DANBORRADARAKO, GERTU

Argazkikoak dira bihar egingo duten Haurren Danborradako banderadunak, eta dagoeneko gertu daude egin behar duten lanerako. Ikurrina eramango duena da Ainhoa de Toro, SUDCeko ordezkari lanetan ibiliko da Izaskun Mariñelarena. Saioa Errasti da Arrasateko herria ordezkatu duena, eta Mikel Otxandianok egingo ditu jeneral lanak. Esandako moduan, ardura handia

izango badute ere, danborradako gainontzeko lagun guztiekin batera gogor ibili dira entseatzeko, dena behar den moduan irteteko. Jakin, 19:00etan hasiko dutela Haurren Danborrada. Nafarroa etorbideetik Garibai etorbidera egingo dute, handik Maalara, Erdiko kaletik gora egin eta Herriko Plazan amaituko dute ibilbidea. Gainera, Arrasate Musika-lerkoen laguntza izango dute.



SAN JUANEN BARRUAN, MUS TXAPELKETA DOMEKAN

Dagoeneko bederatzi urte egin ditu Roman Lopezek San Juanetan antolatzen duen Mus Txapelketak. Aurtengoa ere sariz beteta dator, besteak beste, txapelketak Udalaren eta Euskadiko Kutxaren babesa izan duelako. Domekan egingo dute txapelketa, 16:30ean, Mondragon hotelean. Gura duten guztiak hartu ahal izango dute esku. Lehenengo lau sailkatuek sari ederrak jasoko dituzte, baina lehenengo hamasei sailkatuendako ere izango dira sariak. Horrez gain, aurtun, esku hartzen duten guztiendako opari bat izango da, balio handikoa. Erretratuan, joan den urteko finalistak: Rober eta Mora, Gorkaren eta Tomasen kontra.

Arizmendi Ikastola, Akitaniako Insup-ekin elkarlanean

I.B.

Arizmendi Ikastolak eta Akitaniako Insup erakundeak elkarlanean sortutako ekimen pedagogikoa, Ariptic izenekoa, arrakastatsua izan da. Proiektua 2002an abiarazi zuten, eta emaitzak jaso berri dituzte.

Aipatutako proiektua 2002an abiarazi zuten, eta orain emaitzak eta konklusioak jaso dituzte. Hori guztia aztertzeko, Bidart herrian elkartu dira Pirinioetako bi aldeetako ikasle eta irakasleak.

Proiektu hori mugaz kanpo elkarlanaren emaitza izan da, eta Ariptic egitasmoaren barruan dago. Are gehiago, Europako Batasunak lagundutako ekimena da. Haren helburu nagusiak dira nazioarteko mugak garapen orekaturako eta integratuzko oztopoa ez izatea, hain zuzen ere.

HELBURUA ALDATUZ JOAN DA

Hasieran finkatu zuten helburua zen Europako hainbat herritan

material didaktiko bera erabiltzea eta garatzea, eta egon daitekeen kultura eta pedagogia distantzia gainditu. Eta horrela egin dute azken bi urteotan.

Baina, bidean beste helburu batzuk ere zehaztu dituzte. Arizmendi Ikastolako zuzendari Txaro Iraetaren esanetan, "teknologia berriak hezkuntza mailako egunerokotasunean txertatzea eta langileen elkarlana bultzatzeko gunea sortu dugu". Horrez gain, Iraetak azpimarratu zuen beste herrialde batzuekin elkarlana egiteko aukera izan dutela, eta hizkuntzak eta urruntasunak sortzen dituzten oztopoa gainditzen ikastea ere oso aberasgarria izan dela.

IRAKASKUNTZA, SAREAN

Arizmendiko eta Akitaniako Insup erakundeko ordezkariak sare bidezko irakaskuntza goraitu zuten, eta zera azpimarratu zuten: "Irakaskuntza horrek nork bere erritmoan lan egitea bideratzen du, eta norberak erabakitzen du zer erabili".



ARIZMENDI

Argazkian, Arizmendi Ikastolako eta Akitaniako Insup erakundeko ordezkariak.

ELKARRIZKETA

IGOR EZPELETA/CAPOEIRA IRAKASLEA

"Orain dela 3 urte ikasi nuenetik, ez diot inoiz capoeira egiteari utzi"

IKER BARANDIARAN

Uztail hasieran hasiko dira argazkigintza digital eta capoeira ikastaroak. Lehena Antonio Murillo arrasatearrak emango du, eta bigarrena Igor Ezpeleta eskoriatzarrak. Interesatuak jo lehenbailehen Gazte Bulegora.

Zer da, hitz gutxitan, capoeira? Borroka, dantza...?

Zaila da hitz gutxitan azaltzea, baina modu baten esateko da bi laguneren arteko elkarrizketa bat, mugimenduen bitartez egiten dena. Batek ostikada batekin galdera bat egin dezake, eta besteak, urruntzeko mugimendu batekin, erantzun bat. Hori guztiori, musikaren erritmoaren laguntzarekin egiten dugu. Hortaz, borroka edo arte martzialak dira, ostikadak eta mugimendu akrobatikoak dituelako; eta bestalde, dantza ere bada, musikaren erritmoari jarraituz egiten dugulako.

Jatorria Brasilen eta sustraiak Afrikan ditu?

Bai, berez Brasildik dator, baina han zeuden Afrikako esklaboek sortu zuten. Gaur egun, capoeira Brasilgo bigarren kirol garrantzitsuenak da, futbolaren ostean, jakina. European ere oso zabaldua dago: Holandan, Norvegian, Ingalaterran, Frantzia... Espainiako Estatuan ere denbora laburrean asko zabaldu da.

Noiz eta zelan ikasi duzu zuk capoeira?

Orain dela hiru bat urte Edinburgora joan nintzen master bat egitera. Han, capoeira ikastaro baten eman nuen izena, benetan zer zen jakin barik. Izugarri zaletu nintzen, eta oraindik ez diot inoiz capoeira egiteari utzi. Euskal Herrira bueltatu eta Eskoriatzan lagunei irakatsi nien, ez neukalako aukerarik beste inon egiteko. Handik gutxira, Brasilerak hilabeteko bidaia egin nuen gehiago ikasteko: hango taldeekin entrenatzen, capoeira eta musika estilo desberdinak ikasten... Eta handik bueltan, eskerra handitu egin zenez, ia oharkabean eskolak ematen hasi nintzen. Gaur egun, Oñatin eta Eskoriatzan ematen ditut, eta uztailan, Arrasatez gain, Aretxabaletan ere hasiko naiz. Horrez gain, uda ostean Bergaran emateko ere eskatu didate.

Hortaz, ingeniari-tza ikasi arren, capoeira eta ingeles irakaslea zaitugu?

Bai, hala da. Uste baino zailagoa da ingeniari-tzarekin lana aurkitzea, eta horren ordez ingeles irakastea da nire egungo ogitidea. Capoeira irakasten gehiago disfrutatzen dut, baina kome-



"Hainbat alderdi ditu: besteak beste, dantza eta arte martziala uztartzen ditu"

"Ia oharkabean elastikotasuna asko lantzen da, eta lotsa kentzen ere asko laguntzen du"

ni da beste lanpostu bat izatea, badaezpada-edo.

Eta zer dauka, horrenbeste jarraitzaile izateko?

Batez ere, bere baitan hainbat alde izateak. Arte martziala izateak lagun askoren arreta pizten du; musikaren erritmoan egiteak ere badu garrantzia; eta Brasildik etorri izana ere interesgarria da askorendako, aspaldian Brasil modan dago-eta. Hala ere, hasieran alderdi bakar batek erakar zaitzakeen arren, denbora laburrera, capoeira bera osotasunean ulertzen hasten gara gehienok.

Musika berezia ere erabiltzen duzue...

Bai. Hainbat instrumentu daude, baina garrantzitsuenak

hiru dira: *birinbau*-a - arku antzeko bat kalabaza batekin-, *damborra* eta *panderoa*. Instrumentu horiekin eramaten duten erritmoaren arabera, borroka azkarragoa da, estiloa aldatzen da... Tonu desberdinak bereizten ikasi beharra dago.

Borroka hori egiteko derri-gorrezkoa da sarritan kirola egitea?

Ez. Capoeira egitean, ia oharkabean elastikotasuna asko lantzen da, baina ez dauka zertan pertsona kirolaria izan. Horrez gain, lotsa kentzen ere asko laguntzen du, korro baten erdian dantza edo mugimenduak egin behar izaten ditugulako. Bi orduko saioak izaten dira, baina oso azkar igarotzen dira, konturatu barik.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

ARRASATEko san juan jaietan HERRI BAZKARIA

ZALDIBAR frontoian
2005-06-26

*Giokelako harakinek prestatutako
saihets - dastaketa*



naturala, samurra, gozoa

1987



2005

**Jadanik Helduak Gara
Mila Esker Arrasate**

EZETZASMATU



"ARRASATE, 1936 BELAUNALDI ETENA" LIBURUA

Zein taldetakoak dira argazkiko arrasatearrak?
Arrastoa: hortik sortu zen gero Amaiur batailoia.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Creme tropical galletak
800 gr + 100 gr doan

1,42€ 236 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

DANEL LEUNDArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Danel!
Galderen erantzun zuzena:
Ikutixo baserria.

ERRETRATUZAHARRA

Murugaingo gurutzearen urteurrena (II)

Murugaingo gurutzea egin eta ipini zuteneko istorioarekin bukatuko dugu oraingoan. Inaugurazio eguneraino iritsi ginen aurreko atalean. Egun hartan, ekainaren 4an, izugarrizko beroa egin zuen. Hala dio Antxiaren liburuak: "Murura zihozazen askok bidean gelditzea erabaki zuten. Galartzakoek euren laguntza eskaini zuten ura marmittatan eramanez".

Behin Murugainen, gurutzea bedeinkatu eta meza egin zuten; Galartzako parroko Leandro Arrazolak esan zuen. Meza bukatu ostean, UDAko kontseilariak, Luis Agirrek dominak jarri zizkien aurreko urteko mendizale finalistei.

Bestalde, gurutzearen plakan dauden bertsoak Salbatore Mitxelena egindakoak dira. Hala du gogoan Jon Ugaldek: "Gure aittak, Basarriri eskatu jutzan bertsoak, plakan jarteko, baina honek atxekixia ipini jutzan... Domeka baten Agirretxe fraillia etorri zuan gure etxera, eta komentau gutzan; handik hamabost



egunera 30 bertso bialdu juskuan, Salbatore Mitxeleneak einddakuak".

Harrezkero, Murun gurutzea dagoenetik, jende askoren elkargune da leku hura. Hala erakusten du oraingo asterako utzi diguten argazkiak.

Ospakizunera joan zirenen tartean, hor aurrean ikusten duzuen gizonez-


koa Eloi Urtzelai Heriz da eta umea, berriz, Jose Ramon Urtzelai Otadui, haren semea. Jose Ramon Urtzelaiak kontatu digu sorbaldan igo zutela egun hartan Murura aitaren lehengusu Agustin Herizek eta Julian Amozarriek eta haren koadrilakoek. Kontatu digu, baita ere, Murugaingo gurutzea

1993an margotu zutela azkeneko aldiz, irailaren 26an. Pedro Mulas Altonilla eta Martin Garaik margotu zuten.

Argazkia eta informazioa: Aitor Antxiaren *Murugain 50. urteurrena 1950-2000* liburuaren eta Jose Ramon Urtzelai. **Urtea:** 50-60ko hamarkada.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

Metal aroztegia, P.V.C.
eta aroztegia
Lekuz aldatu gara!

Goiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel./Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a

385. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: 55378/94

ELKARRIZKETA

GABRIEL ELORRIAGA/MEDIKUA

“Bostetatik aurrera ez ditugu larrialdi kasuak hartzen medikua egon arren”

MIRARI ALTUBE

Osasun etxeko zerbitzuek hainbat aldaketa izan dituzte azken hilabeteotan. Gabriel Elorriaga medikua da Aretxabaletako osasun etxeko arduraduna, eta aldaketok argitu gura izan ditu, gaizki-ulerturik egon ez dadin.

Aldaketak daude osasun etxean, ez?

Bai, beste mediku bat daukagu Aretxabaleta eta Eskoriatza osatzen duten osasun etxeetan. Aretxabaletan bi mediku daude 08:00etatik 15:00etara lanean; beste bat 10:00etatik 17:00etara, eta orain sartu denak 15:00etatik 20:00etara egiten du lan.

Hortaz, arratsaldean ere zabalik dago osasun etxea...

Bai, mediku bat lanean dabilelako bere gaixoeekin, baina horrek ez du esan gura larrialdiak hartzen dituenik. 15:00etatik 17:00etara bitartean bakarrik hartzen ditugu larrialdiak, bai medikuari, bai erizainari dagozkienak; hortik aurrera ez. 20:00ak arte dagoen medikuak hitzordua duten bere gaixoak bakarrik hartuko ditu.

Eta 17:00etatik aurrera zer?

Larrialdietarako beste zerbitzu batzuk daude 17:00etatik aurrera: Medicaldom etxera etorzen den zerbitzua eta Arrasateko ospitaleko larrialdi zerbitzua.



M.A.

Eta pediatriako zerbitzua?
Lehen bezalaxe 15:00ak arte izango da, eta larrialdi kasuak Arrasaten hartuko dituzte.

Zela banatu dituzue gaixoak mediku berriarekin?

Osakidetzak banatu ditu, lehen geunden medikuok gaixo gutxiago izan eta zerbitzu hobea emateko asmoarekin. Lehen 2.400 herritar genituen bakoitzak eta orain, 1.600 inguru. Ondorioz, gaixo batzuei medikua aldatu die eta arratsaldera pasatu ditu.

Kexarik jaso duzue aldaketa horien erruz?

Bai, 20 erreklamazio jaso ditugu apiriletik hona, eta guztiak erantzun ditut. Ez zait iruditzen asko direnik; izan ere, medikua aldatzea ez da batere gustukoa askorendako. Pazientzia izateko eskatuko nuke eta aukera bat emateko mediku berriari. Sei hilabete itzarongo ditugu zerbitzua zela doan jakiteko eta gero aldatu egin gura duenak eskaera egiteko aukera izango du. Hala ere, guztion onerako dela aldaketa gaineratu gura dut, eta zerbitzu hobea emateko asmoarekin egin dugula.

Parrokiako organoaren mendeurrena da aurten

M.A.

Parrokiako organoak 100 urte bete ditu. Fernand Prince frantsesak bere izenarekin eraikitako bakarra da, eta organo handien mailarik ez badu ere benetako bitxia da. Egoera onean egon arren konponketa batzuk behar ditu, eta irailean hasiko da Azpeitiko enpresa bat horretan.

Mendeurrena aitzakia hartuta Andre Mariaren Zeruratze parrokiako organoa konpondu egingo dute. Izan ere, tresna benetan bitxia daukagu gure parrokian.

100 URTEKO BITXIA

Cavaille-Coll organo famatuaren muntatzailea izan zen Fernand Price frantziarrak eraiki zuen. Azkoitiko organo-jole izandako Jose Izurrategik idazlan baten jaso zuen Pricek zelan egin zuen lan muntatzerakoan. Donostiako Santa Maria elizan edo Loiolako base-

lizan daukaten organoen mailarik ez du, baina Aretxabaletakoa ere gorde beharreko bitxia dela adierazi dute ikertzen ibili diren adituek.

KONPONKETA LANAK

Organoak mekanika transmisio bidez dabilzan bi esku-teklatu ditu, eta bakoitzak 56 nota dauka. Beste 30 nota, ostera, pedalarren bidez jotzen ditu organo-joleak. Jotzen den tekla bakoitzak, gainera, 11 hodi mugiaraz ditzake.

Egoera onean dago organoa, baina konponketa batzuk behar dituela frogatu zuten Foru Aldundiko teknikariek. Hala, irailean hasi eta hilabete biren buruan egingo dituzte lanak parrokiaren bertan. Lanon aurrekontua 13.340 euro da, eta aretxabaletarren laguntza eskatu du parrokiak. Proposamena ere egin dute: 142 tekla izanik bakoitzeko 60 euro ematea. 8.520 euro jasoko litzukete modu horretan, eta gainerakoa beste dirulaguntza batzuen bitartez estaliko dute.

LABUR

Andramaixetarako Esaldi Lehiaketa 13 urtetik gorakoendako astelehenetik aurrera

Esaldi Lehiaketa antolatu dute Kultura Sailak eta Prebentzio Zerbitzuak Andramaixetarako. 13 urtetik gorako aretxabaletarrek gura beste esaldi aurkez ditzakete astelehenean hasi eta uztailearen bitartean. Udaletxean edo kultura etxean jasoko dituzte esaldiak, eta uztailearen 6an emango dute saridunen zerrenda. Andramaixetako egitarauan erabiliko dena asmatu duenari 100 euro emango dizkiote eta pegatinak egiteko erabiliko dituztenen egileei 50 euro.

n
a
r
e
n

FISIOTERAPIA
ZENTROA



**Masajeak
Osteopatia
Fisioterapia
Etxez-etxeko zerbitzua**

Hainbat aseguru-etxeekin lan egiten dugu.

Belorrieta auzoa 5, behea
ARETXABALETA
943 08 21 89

Fisioterapeutak:
Nagore Llodio eta Miren Maiztegi

FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 11
FRAILE.Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMIKA, 12
FRAILE.Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzaila	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria salla	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalitzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALITZAINGOA

Arasate

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00
943 46 11 11	
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00



ARTXIBOA

Herritarrek suaren inguruan batuko dira antzinako usadioa gertutik jarraitzeko.

Dantzak eta sua, San Juan bezperako usadioak

M.A.

San Juan bezperako usadioek sustrai sakonak dituzte gurean, eta udako solstizioari ongiatorria egiteko egitaraua antolatu du Kultura Sailak. Dantzak eta sua izango dira protagonista magiaz betetako gauean. Santa Ageda mutilek, zela ez, tantaia jasoko dute gauerdien bueltan.

Antzinako erritoei gaurko bizi-moduarekin egingo dute bat San Juan bezperako gauean. Udako solstizioari ongiatorria egitea da helburua; era berean, sorginkeria eta txarkeriak sutan erre eta bizitzari egiten zaio dei.

GAUEAN, SUA ETA TANTAIA

Kultura Sailak gertu dauka egitaraua ume zein nagusiok ondo pasa dezagun San Juan bezperako gauean. Arratsaldean, 18:30ean, Loramendi Dantza Taldeko eta Leizarra Musika Eskolako kideen emanaldia izango da Herriko Plazan; eta buruhandiak ibiliko dira gero, kalean. Magiaz betetako gauari hasiera emateko dantzaldia egongo da Haitzama taldearen eskutik. 22:20 inguruan, San Juanetako zortzikoa egingo dute dantzan Loramendi Dantza Taldeko dantzariak. 22:30ean San Juan sua piztuko dute, eta gauerdian inguruan tantaia jasoko dute datorren urtean Santa Ageda mutil izango direnek.

Loramendi EEk lorategia txukunduko du auzolanean

M.A.

Loramendi Euskara Elkarteak lorategia dauka lokalaren atzeko partean. Belarra besterik ez du orain, baina zuloa egin, txukundu eta hitzaldiak egiteko lekua jarri gura dute elkarteak kideek. Horretarako, baina, herritarren laguntza behar dute, auzolanean egitea da-eta helburua.

Loramendi EEk auzolanerako dei egin die herritarrei. Helburua da elkartearen atzeko partean daukaten lorategia txukundu eta erabiltzeko moduan jartzea. Astelehenean, ekainaren 20an, hasi gura dituzte lanak; hortaz, lanari beldurrik ez diotenek Durana 11ko lokalera hurrera daitezela.

HITZALDIK EGITEKO LEKUA

Lanei Udaleko Hirigintza Saileko teknikariek egingo diete jarraipena, Loramendi EEko kideek koordinatuko dituzte eta herritarrek izango dira auzolanean ibiliko direnak. Sei laguneko taldeak egitea da asmoa, 18:00etatik 21:00etara bitartean lan egiteko. Ekainean hasi eta uztailean bukatu gura dituzte, oporrak hartu aurretik. Hori bai, lan handia dago egiteko: belarra moztu, lurra kendu, zuloa egin eta hitzaldiak egiteko moduko anfiteatro txikia jarri.

Loramendi EEko kideen esanetan ez da ezer ekarri behar; go-go eta indarra, besterik ez. Astelehenean bilera egingo dute lanok antolatzeko; hortaz, beldur barik hurrera dadila jendea.



M.A.

Erabilerarik ez daukan lorategia txukundu eta hitzaldiak egiteko lekua jarriko dute.



Propaganda
Kartelak
Jai egitaldiak
Pegatinak
Liburuak
Errebistak

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Karlos

Starakiua

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

LABUR

Alebin mailako gaztetxoek finalurrekoak eta finala jokatu dituzte bihar, Ibarra

Hamaika urteko Debagoieneko 200 neska-mutiko inguru elkartuko dira bihar, zapatua, Ibarra futbol zelaian. Leintz Eskola Kirolak antolatuta dagoeneko bost jardunaldi jokatu dituzte, eta bihar, finalurrekoak eta finalak izango dituzte. 09:00etan hasi eta 13:30era bitartean partidu ugari izango dira ikusgai.



Sari bi jaso zituzten karate jokalariek

Klub arteko III. Karate Txapelketa jokatu zuten joan zen aste bukaeran Arrasaten, eta Aretxabaletako karate jokalariek sari bi jaso zituzten. Oxel Vazquezek lehengo postua lortu zuen 6 eta 8 urtekoen artean, eta Julen Lozanok bigarrena 9 eta 10 urtekoen artean. Odilo Vazquez entrenatzailea pozik zegoen emaitzekin, eta eskatu zien halaxe jarrai dezatela lanean. /M.A.

Masaje zerbitzua eskainiko dute Udaleko Kirol Zerbitzuek


M.A.

Masaje zerbitzua jarri gura dute abian Udaleko Kirol Zerbitzuek. Kiroletako masajeak, terapeutikoak, erlaxagarriak... baita kirol lesioen tratamendua ere. Edozein herritar hurre-ra daiteke kirol etxera zerbitzua eskatzera, baina abonatuak merkeago izango dute.

Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte Udaleko Kirol Zerbitzuek kirol etxean, eta orain beste bat gaineratuko diete: masaje zerbitzua. Hitzordua eskatzeko kirol etxera deitu behar da.

MASAJEAK ETA ELEKTROTHERAPIA

Masajeak emateko zerbitzua dago aukeran kirol etxean. Kiroletako masajeak, terapeutikoak eta erlaxagarriak emango dituzte. Horiez gain, elektroterapia tratamendua eta kirol lesioen tratamendua eskainiko dituzte. Goienasport enpresa arduratuko da zerbitzua emateaz, eta Goretti Gonzalo arrasatearra da fisioterapeuta. "Jendeak eskatuta jarri dugu abian zerbitzua. Hala, zerbitzu osatua emango dugu eta gimnasia egitearekin batera lesioak tratatzeko eta masajeekin lasaitzeko



Gela berria egin dute kirol etxean masajeendako, eta egokitzen dabilta egunotan.

aukera eskainiko diegu kirol etxera datozenei", dio Bixen Calzon Goienasporteko arduradunak.

ORDUTEGIA ETA PREZIOAK

Masaje zerbitzua gura duenak hitzordua eskatu behar du aurrez. Horretarako kirol etxera deitu behar da 943 71 26 28 zenbakira

edo fisioterapia@goiena.com helbidera idatzi.

Edozeinek egin dezake eskatera, baina Kirol Zerbitzuetako abonatuak merkeago izango dute. 20 eta 45 minutuko saioak izango dira aukeran, eta saio bakarra edo bost saioko bonua eskaintzen dituzte.

Felix Recio jarraituko du entrenatzen preferenteko taldea

M.A.

Futbol jokalariek oporretan daude, baina ez elkarteko zuzendaritza taldekoak. Aretxabaleta Kirol Elkartea, UDA, datorren denboraldian pentsatzen hasita dago, nahiz eta zein jokalaria izango dituen zehaztu ez. Felix Recio entrenatzaileak jarraitu egingo du.

Jokalariek oporretan dauden bitartean UDAko zuzendaritza taldeko kideak lanean dabilta. Oraindik ez daukate zehaztuta tal-

dean zeintzuk izango diren, baina badakite entrenatzaileak jarraitu egingo duela, Felix Recio soraluzetarrak.

AGURRAK IZAN DAITEZKE

Uztailaren 4an egingo du bilera zuzendaritza batzordeak jokalaria eta entrenatzailearekin hurrengo denboraldia antolatzen hasteko. Orduan argituko dituzte jokariaren gaineko zalantzak. Aurten omenaldia jaso duten Erikok eta Kepa Azkuek seguru asko utzi egingo dute taldea, baina irail

arte izango dute pentsatzeko taldea. Horien hutsunea betetzeko, hala gertatuz gero, beste batzuk beharko dituzte preferenteko taldean eta gazteen taldeetan, eta dagoeneko UDAn jokatutako jokariengan pentsatu du zuzendaritzak. Hala ere, oraindik ez dute zehaztu zeintzuk izango diren. Hori bai, Felix Recio jarraituko du entrenatzaile lanetan. Soraluzetarrak otsailean hartu zuten taldearen ardura, zuzendaritzak Neka Galan ordezkatzera erabaki zuenean.

JAUSQRO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Matikua jatetxea

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68


L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

ATREBENTZIAEZPADA/ Jai batzordie Andramaixak gertaketan hasi da; zuk badauketzu proposamenik?



IKER MORAL
Ikasle



TZEITEL MARTIN
Langillie




INAXIO CORRES
Langillie



MARIA ISABEL LAPERAL
Langillie



UNAI GARCIA
Langillie



LOREA GABILONDO
Langillie eta ikasle

Ez naz urtero egoten, noiz behin bakarrik. Egixe esateko ez dakit zer eskatu... Kontziertuek bai, aretxabalarrek jo daixela; The Ruders taldiek, esate baterako.

Ez naz egoten hamen, baiñe ez dot uste fetxa txarrien dienik jaixok. Barraka edo ferixa gehixau jarriko neuke; neri postuek gustetan jat, eta halako gehixau etortie gureko nauke.

Egitaraue beti da oso antzekue. Umiendako gauza asko egoten da eta ondo dau, baiñe... Txosnetan izugarriko tablaue jarten daue gaba baterako; erabili daixiela gehixau.

Abuztuen ez da iñor egoten; hortan, irailera aldatuko neuke Andramaixak. Ni neu be askotan ez naz egon izen. Egitaraue gustetan jat, baiñe giro faltie somau izen dot beti.

Nik neuk irailera pasauko nauke jaixe; askoz be jente gehixau egongo gitzake eta giro hobie. Egitaraue bestela ondo dauela pentsetan dot, nagusixendako jarriko neuke gehixau.

Egitaraue urtero bardiñe izeten da, eta aldaketa batzuk sartie ondo legoke. Umiendako gauza asko egoten die; hortan, gaztiendako ekintzak inddertu biherko leukie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ESERLEKUAK ZIKIN Gustura egoten dira herritarrak Durana kaleko eserlekuetan, haritzpean, batez ere orain, uda partean. Apur baten eserita egonez gero, baina, itsatsita geratzen dira arropak eserlekuan eta zikinduta ere bai batzuetan. Izan ere, ume asko ibiltzen da bertan. Lan handia ez bada behintzat garbitzaileen-dako, noizbehinka zapi busti bat pasatzea ez legoke gaizki. / M.A.

ORAINDELA3URTEARETXABALETAN

356 mendizale Murrukixoren II. Mendi Martxan

Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako II. Mendi Martxan 356 lagun elkartu ziren, eta 28 kilometroko ibilbidea egin zuten. Debagoieneko mendizaleak izan ziren nagusi, baina kanpotarrak ere hurreratu ziren gurera. Lehen taldea 11:15ak inguruan itzuli zen herrira.



ASTEKODATUA

144

MUTIKOK JOKATU DUTE NAZIOARTEKO TXAPELKETA

Alebin mailako mutikoen Nazioarteko Futbol Txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan, 144k hain zuzen. Horietatik 12 Arizmendi ikastolakoak izan ziren, gainerakoak kanpokoak.

BESTEKEESANA

“ Nik esango nieke zer edozer sortzen edo sortu berri dutenei hurbiltzeko Enplegu Zerbitzura ordenantza eta arautegi propioak ditugu eta. Nik uste dut nahiko zabaldu dela egoera horretan egon daitezkeen pertsonengana: beste Enplegu Zerbitzu batzuetara zuzendu dugu, Garapen Agentziara, inguruko herrietako enplegu zerbitzuetara eta Inemen ere badute honen berri. Saiolanen ere ezagutzen dute gure programa, eta gero, gestoria eta aholkularitzetara zabaldu dugu. Hala ere beti egon daiteke norbait softe dabilena, eta hauengana iritsi gura dugu. Pasatu daitezela Udal Enplegu Zerbitzutik eta xehetasun guztiak emango dizkiogu: zein dokumentazio aurkeztu behar duen... ”

MARGA GARMENDIA
Arrasate Irratia/05-06-10

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Hona hemen gaia

Oraingo honetan gaia, literalki, eskuetara heldu zait. Dela egun batzuk, arratsean, etxeko zelaitik zehar nindoala nire begiek zerbait bistaratu zuten, hurbildu, makurtu eta lurrean ikusi nuena jaso egin nuen: liburuxka bat. Izenburua hauxe: "¡Aquí hay tema! Trucos para ligar". Ez nekien ze sentitu. Gainera, edari zehatz batek babestutako liburuxka zen. Honekin batera, burura orain irakurtzen ari naizen liburua etorri zitzaidan: "Maita ezazu eta egin nahi duzuna". Biak mezu idatzia daukate eta norbaitek pentsa dezake, izenei begiratu, bien sena antzekoa izan daitekeela. Alde eder! Ez zait buruan kabitzen, komunikazioaren aroa deritzan honetan, supermerkatuan, igogailuan, lanean, ikastetxean, mendian... komunikazio arinena lortzeko ere trukuak eman behar izatea. Besteekin komunikatzea ligatzea dela esatea. Sinonimoak direlakoan!

Eta nork esan hori, eta edari marka batek. Zoritxarrez, dirua eta hitzak soberan dauzkagu eta ez dakizkigu nola gastatu, enplegat.

Gero esango dugu geure gizartean ikusten ari garen hainbat jokabide desegokiak direla, ez dakigula geure izateari zentzua emanez bizitzen, kultura maila eskasa dela, harreman sakonak zailak direla... Ez dut uste horrelako "liburuxkek" beste zerbaitean lagundu dezaketenik.

Horrelako gauzak ikusten ditudanean lotsa ematen dit gizarte honetako sentitzea; min hartzen dut nire gaurko gizarte honek horrelako gauzei hain erraz amore ematea; zentzu kritikoa, aberatsagoa ez edukitzea... Batzuek ahotsa ateratzeko indarrak ez miserian bizi direlako eta beste batzuek psikologiaren, soziologiaren... laguntza ordaintzen norbaiti keinu txiki bat nola egin esateko ere... Bakoitzak bere konklusioak atera ditzala.

“Komunikazioaren aroa deritzan honetan komunikazio arinena lortzeko ere trukuak behar izatea...”

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a / 213. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Etxebizitza berrien sustapena eta haien beharra aztertzeke inkesta egingo dituzte

IKER BARANDIARAN

Santa Marinar hainbat etxebizitza egingo dituzte. Horietako 30ek salneurri tasatua izango dute, eta Udalak bultzatuko ditu. Interesatuak inkesta bati erantzun beharko diote. Galdetegiaren bidez jasotako emaitzekin herritarren beharrak aztertuko dituzte.

Orain dela gutxi, Udalak udalerriko etxebizitza plana abian jartzea adostu zuen. Besteak beste, elizaren atzealdean, Santa Marinar, ingurune hori urbanizatzeko eta hainbat etxebizitza eraikitzeke lehiaketa zabalduko du. Han hainbat etxebizitza egingo dituzte. Horietatik 30ek salneurri tasatua izango dute —hau da, gutxi gorabehera 180.000 eurotan salduko dituzte—. Asmoa da lehiaketa prozedura hori uztailean abian jartzea.

Udalaren asmoa da promozio publiko horiek pribatuen aldi berean egitea, azken horien salneurria jaits dadin. Horrez gain, promozio bakoitzarekin eskuratzeko dirua lurzoru gehiago erosteko erabili gura dute. Hala, etxebizitza gehiago eraiki



Santa Marinar, elizaren atzealdean, hainbat etxebizitza egingo dituzte.

gura dituzte. Hain zuzen ere, Udalak uste du etxebizitza tasatuen eredu Babes Ofizialeko Etxeina baino mesedegarriagoa dela, azken horietan onura jasotzen duten bakarrak zozketako irabazleak direlako.

INTERESATUEI, INKESTAK

Udalak sustatutako etxebizitzak eskuratu gura dituztenek inkesta bati erantzun beharko diote derrigorrez. Galdetegi hori Bizilari enpresak egingo du, Udalak hala eskatuta. Horretarako,

enpresako lagunek harrera egingo diete herritarrei Arana kaleko 13. zenbakian, lehenengo solairuan. Martitzenean, hilaren 14an, hasi ziren eta hilaren 25era arte egongo da inkestari erantzuteko aukera. Ordutegia hona-

ko hau da: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Hala ere, interesatuak aukera izango dute aurretik txanda hartzeko. Horretarako, honako telefono zenbakira deitu beharko dute: 626 76 65 01.

IRABAZIAK JUSTIFIKATU

Udalaren sustapenetan edo antzekoetan etxebizitza eskuratu gura dutenek inkesta hori bete beharko dute. Hori egiterakoan, dituzten irabaziaz egiazatu beharko dituzte. Horretarako, egin duten azken errenta aitortzea edo beste agirirekin bat aurkeztu beharko dute. Bizilari enpresako lagunek galdetegi bati erantzun beharko dute (salneurri tasatukoak, babes ofizialekoak, merkatuko salneurria duena...) eta zer tamainakoa gura duten, besteak beste.

Inkesta horien bidez jasotako informazioa Udalak baliatuko du herritarrek duten etxebizitza beharra jakiteko. Horrenbestez, behin premiak jakinda, ahalginduko dira horiei erantzuna ematen eta, halaber, hainbat ekimen prestatzen.

Ikasleek Agenda 21 programa betetzeko eskatu zioten Udalari

I.B.

Eskoriatzako LHko hiru zikloek eta DBHko 1. zikloek Agenda 21 landu dute eskoletan. Udalerriaren egoera aztertu ondoren, osoko bilkura berezia egin zuten eta udal agintariei hainbat eskaera egin zizkieten.

Herriko ikasleak Udala baino lehenago hasi ziren Agenda 21 programa lantzen. Eta emaitzak aztertu ondoren, hainbat eskaera egin dituzte.

Udalak erabaki zuen garrantzitsua zela ikasleen ekarpen eta

eskaerak jasotzea. Hortaz, joan den egunean osoko bilkura berezia egin zuten. Herriko ikastetxeetako 40 bat ume eta gaztetxok osoko bilkuren aretoa bete egin zuten, eta txandaka eskaerak egin zizkieten politikariei.

Alkateak eta zinegotziek eskaerak entzun, eta erabakiak hartu zituzten jarraian.

Lehenik eta behin, ikasleek eskatu zuten Epeleko araztegia ahalik eta lasterren egiteko. Alkateak erantzun zien ez dela euren eskumena, baina ahalginduko guztiak egingo dituztela. Are gehiago, Bengoak gogoratu zuen laster

Dorletako eta Santa Marinar urak kolektorera eramateko lanak egin behar dituztela.

Horrez gain, ikasleek eskatu zuten Arbiñoste, Makinetxe, Antontxu eta Uretseko iturburuak konpontzeko. Udalak agindu zuen Uretsekoa izan ezik, beste guztiak aurten konponduko dituztela. Uretsekoa geroago egingo dute.

Ura aztertu dutenez, ibaian garbiketa gehiago egitea eskatu zuten. Udalak aditzera eman zuen aspaldian fabrikek gutxiago zikintzen dutela, eta Udalak gehiago garbituko duela.



Udalerriko egoera aztertu ondoren, eskaerak egin zizkieten politikariei.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetzak.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Lanialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

ASTE ZAPATISTA

Gaur, egubakoitza, *Zapatis-mo y utopia* liburuaren aurkezpena egingo dute kultura etxean, 19:00etan. Jose Mari Olaizola izango da hizlaria. Bihar, zapatua, Txiapas eguna egingo dute: txikiteoa, bazkari mexikarra, jolasak, kontzertua... egingo dituzte.

AMUSKAKOAK, MADRILERA

Bihartik, zapatua, domekara txangoa egingo dute. Interesatuek jo elkartera.



ARTXIBOA

Herritarrek ez dute urteroko hitzordu hori galdu gura izaten.

Arizmendikoez piztuko dute aurten San Juan sua

I.B.

Urtero moduan, eguenean, San Juan bezperan, sua piztuko dute Herriko Plazan. Axtrokik antolatzen du ekimen hori eta adin guztietako herritarrek batzen dira suaren inguruan.

Tradizioan errotuta dago San Juan bezperan sua egitea, eta Eskoriatzan ere hala egiten dute. Azken 10 urteotan, Axtrokik hartu du lan horren ardura.

17:30ean, umeak Herriko Plazan elkartuko dira, gehienak 5 eta 11 urte bitartekoak. Eginbehar bat izango dute: ludotekako ardura-dunak ezkutatutako txorimaloa aurkitzea. Soro eta mendi inguruetan ibiliko dira horren bila, eta bidean San Juan loreak eta egu-

rrak batuko dituzte. Eguenean jasotako loreak datorren urterako gordeko dituzte, eta aurten iazkoak erabiliko dituzte.

18:30erako bueltan izango dira txorimaloarekin. Ordu horretan bonba japoniarrak jaurtiko dituzte plazan. Sua 22:30ean piztuko dute. Horren aurretik, herriko txistulariek kalejira egingo dute.

Urtero herriko talde bat aukeratzen dute sua piztu dezan. "Aurten Arizmendiri esan diogu, kilometroak antolatzen egiten dabilen lanarengatik", azaldu zigun Axtrokiko Monika Arriaranek.

Sua pizterakoan, Axtrokikoez azalduko dute zergatik aukeratu duten Arizmendi, urtero egiten duten moduan, eta txistulariek joko dute. 23:30ean, koadrilek makala jasoko dute.

LABUR


TESA enpresatik 20 langile kaleratu gura ditu Assa-Abloy multinazionalak

Suediako Assa-Abloy multinazionalak *Leverage and Growth* izeneko programa jarri du abian bere enpresetan, eta horietako bat da TESA (Talleres Eskoriatza Sociedad Anonima). Proiektuaren helburua da ekoizpena areagotzea, eta horretarako langile taldea murriztu gura dute. Guztira, 10.000 langile bota gura dituzte, eta horietatik 25 izango dira TESAKo langileak. Eta bost izan ezik, Eskoriatzako lantegiko beharginak dira gainontzeko 20 lagunak. Sarrailek egiten dituen enpresatik aditzera eman dute aurre erre-tiro hitzarmenen bitartez langileekin akordioa egingo dutela.



Jaietako irudia, Miguel A. Casadok

Miguel Angel Casadok egin du jaietako irudia. Kultura Saileko arduradun Arantza Untzueta oso pozik dago lehiaketak izan duen harrerarekin, esku-hartzea aurreko edizioetan baino askoz handiagoa izan delako. Aurten, 15 lan aurkeztu dituzte. Irudi hori egitarauan erabiliko dute, eta San Pedrotan erakusketa egingo dute aurkeztutako irudi guztiekin. /I.B.



FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gastafadul auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko ekainaren 17a / 155. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Uda ostean hasiko dira Iturrosteko etxe berriak eraikitze lanak egiten

UBANE MADERA

Datozen urteotan dezente aldatuko da Ibarra. Urbanizazio eta etxebizitza berriak egin behar dituzte eta egiten dabilta. Besteak beste, Iturrosten, elkarri atxikitako etxeak egiteko proiektua du Promociones Aramaio enpresak. Laster hasiko dira.

Elkarri atxikitako 12 etxe egin behar ditu Promociones Aramaio enpresak. Iturrosten egin behar dituzte, errekararen eta saihebidetaren artean dagoen lursailetan. Promociones Aramaio Migel Angel Burgik jakinarazi digunez: "Nahi dugu egin hiru bloketan, dena bloke bakarrean izan barik, hiru bloke, lau etxeok". Etxeak handiak izango dira, atzeko parterak lursaila dutenak, eta garajedunak. Promociones Aramaio laster ipiniko du etxeok iragaritzeko kartela, jendeari informatzeko: "Etxeak onak izango dira, oso onak".

BI ZUBI ETA BIDE BERRIA

Etxeaz gainera, zubi bat ere eraikiko dute, etxe haientara iristeko,



Enpresak duen asmoa da elkarri atxikitako etxeak hiru bloketan egitea, lau etxe bloke bakoitzean.

Paulotxo etxe zubiaren ondoren. Era berean, Santikurtz Abadearen Plazatxotik bidea egingo dute etxe berrietarako. Eta horrekin batera, proposamena da oinezkoendako beste zubi bat eraikitzea; kasu horretan, farmazia

pare inguruan. Dena dela, oinezkoendako zubiaren kasuan, Udalak egin beharko luke eta ez Promociones Aramaio. Eta hori oraindik ez dago lotuta zeharo. Horrez gainera, etxe berrien eta errekararen artean, barrutik ibil-

tzeko errepide bat eraikiko dute, eta errepidearen eta errekararen artean, parketxo bat egingo dute, jarlekuekin eta. Era berean, 14-15 bat aparkaleku egokituko dituztela gaineratu digu Migel Angel Burgik.

ORAIN, HONDEAKETA-LANAK

Lanak laster hasiko direla jakinarazi digu Burgik: "Nahi dugu opor ostean-edo hasi, negu aurretik. Gero, gauza horiek nahi barik luzatu egiten dira gehienetan, baina asmoa hori da". Hain zuzen ere, lehenengo zubia egingo dute, gero ingurua urbanizatu, zimendatze-lanak egin, eta hori guztiari egin ostean hasiko dira etxeak eraikitzen.

INTERESA DUENARENDAKO

Informazio gehiago behar duenak honako telefono hauek batera deitu beharko du: 630 31 13 18, 659 93 53 70 edo 619 71 60 65 eta Promociones Aramaio galdetu. Enpresa sustatzailekoen ustetan, Aramaioendako oso egokiak dira Iturrosten eraiki behar dituzten etxeak: "Egia esateko, pentsatzen dugu Aramaio horiek etxe horiek salduko direla eta merezi duela herri batean halako etxeak egitea".

Promociones Aramaioekin, besteak beste, Elusu eta Losadak egiten dituzte eraikitze-lanak. Biek hala biek egin izan dituzte etxeak Aramaio, ambulatarioko pareko berria, esaterako.



50 urte bete dituztela ospatzeko hitzordua

Ekainaren 11n, 1955ean jaio-tako aramaioarrak Zumaiara joan ziren egun-pasa. 50 urte bete dituztela ospatzeko egin zuten txangoa. Irudiotako argazkia utzi digute, horren erakusle. Dena dela, kontatu digute nahi baino lagun gutxiago elkartu zirela, eta beste hitzordu bat ipini dutela, haiekin beste ospakizun bat egiteko. Irailaren 3a da egun hori. Agendan apuntatu eta erreserbatuta izateko abisatu dute antolatzaileek. / ITZIAR LARREA

LABUR

Ondasun Higiezinaren gaineko kontribuzioa

Uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga kobratuko du Udalak. Horrekin lotuta, esan digute hoberiak aplikatuko dituztela familia ugarien kasuan: hiru seme-alabarekin, %50eko hobaria, laurekin %70ekoa eta bostekin, %90ekoa. Hoberiak eskatzeko, familia ugaria dela erakusten duen titulua eraman behar da Udaletxera, uztailaren 1a baino lehen. Hoberia aplikatuko diote ohiko etxebizitzaren zergaren kuotari.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaltehea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Oraingo barikuan eta hurrengoan izango dira ekaineko zinema emaldiak. Hala, gaur, 22:30ean, Marc Forster zuzendaria-
ren *Descubriendo Nunca Jamás* filma emango dute, 22:30ean. Johnny Deep, Kate Winslet, Julie Christie eta Dustin Hoffman aktoreek parte hartzen dute, besteak beste. 106 minutu ditu. Drama da.

MUSIKA IKASTEKO ETA ESKOLA GARRAIORAKO LAGUNTZAK

Datorren ekainaren 24an bukatuko da eskola garraiorako eta musika ikasteagatik dirulaguntzak eskatzeko epea. Musika ikasteagatik, Arrasate Musikalen matrikulatuta, langabezia eta Aramaion erroldatuta daudenean eska dezakete laguntza. Eskola garraiorako, berriz, ondorengo ikasketak egin dituztenek: DBH (Arrasateko Institutukoak izan ezik), HSAOG, erdi eta goi mailako heziketa zikloak edo unibertsitate mailako ikasketak. Laguntzak eskatzeko, ikasturteko matrikulazio agiria eta banketxeko kontua aurkeztu behar dira.



Argazkian, Aramaioko bi ordezkariak: Mikel Serrato eta Xabier Igoa.

Bi aramaioar bertsolari txapelketako finalean

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, jokatuko dute XVII. Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala. 23 neska-mutikok parte hartuko dute norgehiagoka horretan, probintziak banatuta. Hala, Arabatik, txikien mailan, Xabier Igoa eta Mikel Serrato izango dira ordezkariak. 11:00etan hasiko da txikien saioa.

Altsasuko Burunda Pilotalekuan jokatuko dute Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatutako bertsolari txapelketa, eskolartekoa. 11:00etan izango da txikien saioa (16 urtera arte), eta 16:00etan nagusia. Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko eskoletako neska-mutikok parte hartuko dute: txikien mailan, probintzia bakoitzetik bina ordezkari eta Iparraldetik lau ordezkari. Eta nagusien mailan, bina ordezkari probintzia bakoitzetik, Iparralde

detik izan ezik, hango hiru ordezkari izango dira-eta finalean.

SARIAK FINALISTA GUZTIENDAKO

Lehen esandako moduan, eskolarteko bertsolari txapelketan izango diren Arabako lau ordezkarien artean, bi Aramaiokoak dira: Xabier Igoa (13 urte) eta Mikel Serrato (12 urte). Maiatzaren 21ean Gasteizko Armentia aretoan jokatutako txapelketan sailkatu ziren biak.

Biharko saioan, besteak beste, zera egin beharko dute: agurra gai baten gainean, lau oinak emanda bertso bana eta binaka ofiziotan bina bertso zortziko txikian.

Txikien saioa eguerdi partean bukatuko da eta irabazleen izenak momentuan jakinaraziko dituzte. Dena dela, arratsaldeko saioaren ostean banatuko dituzte sariak. Txapelkun eta txapel-dunordeendako sariez gainera, finalista guztiendako sari berezi bat izango da Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eskutik.

Mediterraneaner Joko barik utzi dute Maider Unda

U.M.

Bazen zurrumurrua Mediterraneaner Joko barik geratuko zela Maider Unda, eta hala baieztatu diote. Emakumezko borrokalari gutxiegi direla-eta, ez dute lehiaketan parte hartuko. Orain, oporretan da borroka libreko Estatuko txapelketa, baina laster mundiala preparamatzeari ekingo dio.

63, 72 eta 77 kiloan mailan jokatzen duten borroka libreko emakumeek ezin izango dute aurtengo Mediterraneaner Jokoetan parte hartu. Maider Undak kontatu digunez, gutxienez, seiko lagun taldea eskatzen dute joko horietan parte hartu ahal izateko, eta gaur egun, bost dira emakumezko borrokalariak. Edozelan ere, Oletako borrokalariak ez

du pena handirik, edo, behintzat, gaitur du: "Asimilatuta dut, zurrumurrua aspalditik zeterren-eta". Hala, esan digu orain opor txiki batzuk hartzeko aprobetxatu duela.

IRAILEAN, MUNDIALA

Hori bai, abuzturako berriro entrenatzen hasiko da Maider Unda: "Abuztuan mundiala preparamatuko dut, irail bukaeran edo urri hasieran jokatuko da-eta. Uste dut Hungarian dela aurtengo". Halaber, esan digu oraingoz betiko entrenatzailearekin segituko duela, Cresporekin, baina akaso, abuztuan 15 egunez kanpora joango direla entrenatzaera, Espainiako Borroka Libreko Federazioaren eskutik.


Mundialaren gainean galdetuta, berriz, esan digu "oraindik denbora falta dela".

LABUR

Egun osoko ibilaldia domekan, eta perkusio kontzertua datorren barikuan

Bi hitzordu proposatu dituzte Zuiako Koadrilaren barruan, datozen bi asteburuotarako: batetik, etzi, domeka, koadrilak antolatzen dituen ibilaldien artean, egun osokoa egingo dute, hainbat leku bisitatzeko; tartean Oletan izango dira. Hain zuzen ere, Ollerias, Oleta, Elosu, Manurga eta Olano bisitatu dituzte. Intereza duenak 945 14 55 99 telefonora deitu beharko du. Irten, berriz, Gasteizko Europa gizarte etxetik irtengo da autobusa, 09:00etan.

Bestalde, Zigoitiko zentro sozio-kulturala programazioaren barruan, ekainaren 24an, Djamboree taldeak *batukada* modukoa egingo du, Ameriketako, Afrikako, Asiako... perkusioarekin: djembeak, darbukak, bongoak... entzuteko aukera izango da. 20:00etan hasiko da, Gopegin. Sarrera kostatzen da bi euro helduendako eta bat umeendako.



San Martin jaietarako aukeratutakoa

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak argazkian ikusten duzuen marrazki hori aukeratu du aurtengo San Martin jaien irudia izateko. Grafitia da, *Ukan* arrasatearrak egindakoa. Pasa berri den Gazte Egunean egin zuen grafitia, Aramaioko gazteen enkarguz. Marrazkia, berriz, gazteen eta grafitigilearen artean aukeratu zuten. Grafitia hantxe dago, kultura etxean, gazteen lokaletan. Orain, berriz, gazteek gainerako herritarrei erakutsi gura izan die, eta bide batez, herriko jaiak iragarri. / U.M.

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 17a / 11. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelaigoiena.com • Lege gordailua: SS483/05

ERREPIDEAK/ Konponketak egiteko proiektua onartu du Diputazioak

Arlabango mendateko maldak konpondu egingo dituzte, autobidea egindakoan

XABIER URTZELAI

Arlabango mendateko hainbat gunetan ezpondak edo maldak daude, lur mugimenduek edo luiziek sortutakoak. Eta Diputatuen Kontseiluak onartu egin du errepide horretako zenbait puntutan lanak egitea, lurra berdindu eta asfalto behar den moduan jartzeko.

Konponketa horiek GI-627 errepideko hainbat zonatan egin behar dituzte, bai Eskoriatzako lurretan eta baita Leintz Gatzagakoetan ere. Proiektu horrekin, behin betiko konpondu gura dituzte errepide horretako 22,210 eta 23,230 kilometro-puntuen artean izan diren lur mugimenduek sortutako maldak. Hala, lan horiekin errepideko inklinazioak berdintzearekin batera, trazatua bera ere moldatu egingo dute.

EGUNEAN 8.000 IBILGAILU

Kontuan izan behar da Arlabango mendatean egunean 8.000 ibilgailu baino gehiago ibiltzen direla. Hori ez da, baina, errepidearendako kaltegarriena. Kontua da kopuru horretako %73 garraio astuna dela. Hau da: kamioiak eta autobusak. Bistan da lanok egin bitartean ibilgailu horiek ezin



Garraio astuneko ibilgailuek erabiltzen dute errepide hori gehien, eta horrek erraztu egiten du asfaltoan maldak sortzea.

izango dutela Gatzagako errepide zaharra erabili. Horregatik erabaki dute AP-1 Eibar-Gasteiz autobidea eginda egon arte Arlabango mendateko konponketa lanak ez egitea (egin dituzten aurreikuspenen arabera, 2007ko

urte amaierarako egingo dute autobidea hori). Autobidea egin da egoteak ahalbidetuko du Arlabango errepideko konponketa lanak etenaldi barik egin ahal izatea. Eta dagoeneko Diputaziokok esan dute errepidean kon-

ponketa horiek egiteko kilometro-puntu horien inguruan dauden hainbat lursail beharko dituztela. Lur mugimenduek sortutako maldak konpontzeko proiektuak 3.687.773 euroko aurrekontua izango du.

Arlabango mendateko konponketa lanak ez dituzte hasiko AP-1 autobidea egin arte

Konponketa lanak egiteko proiektuak 3.687.773 euroko aurrekontua izango du

LANAK, ZEHATZ-MEHATZ

Hauek dira, zehatz-mehatz, Arlabango mendatean egingo dituzten lanak: aipatutako kilometro-puntuen artean dauden lehenengo lur mugimenduek egonkortzeko, errepidearen gainean dagoen lur mordoak kendu eta zoria berdinduko dute, oinarrian berma bat jarrita. Beste puntu batean, berriz, lur irristaduraren oinean betelana egingo dute, indusitako bolumena eta betelanarena konpentsatuta egon daitezten.

Datorren egunean, sardinak eta saiheskiak, San Juan bezperan

X.U.

Gauean ditugu San Juanak, eta aurten ere gatzagarrak San Migel plazan elkartuko dira San Juan bezpera ospatzeko. Animatzen diren guztiak batera afalduko dute.

Hasteko, herriko gaztetxoek gozamenerako, arratsaldeko zortziak aldera bonba japoniarrak botako dituzte. Horrekin batera hasiko dira antolatzaileak bar-

bakoa ederrak prestatzen, gura beste sardina eta saiheski parrillan erretzeko. Gura duten guztiak har dezakete esku afarian.

Ederto afaldu eta gero, txondorrei su eman, eta San Juan sua piztuko dute; orduan, plazako kale-argi guztiak soberan egongo dira. Ohiturari jarraituz, suaren bueltan elkartuko dira gatzagarrak. Eta, urteko gaurik motzenez, kantatzen eta dantza eginez egingo diote ongietorria San Juan egunari.

ESKERRAK GUREL-EKOEI

Leintz Gatzagako Udaleko Kultura Sailatik eskerrak eman gura dizkiete GURELekoei, egin dituzten azkeneko bi irteerak primerakoak izan direlako. GURELekoak Baltzolako kobetan eta Bermeon izan berri dira, eta Udalekoek ondo dakite gaztetxoak ederto ibili direla. Alde horretatik, Jon Sasiainek eskerrak eman gura izan dizkie, "herriko gaztetxoenen alde egin duten lanagatik".



Eguraldiak lagundu ez duenean, pilotalekuko aterpean egin izan dute afaria.



Zainduz

> UDAKO IKASTAROAK 2005! MATRIKULA DOAN!

BURUAREKIN BAT GORPUTZA ERE MUGITU UDA HONETAN.

- PILATES Hastapena: 36€
- PILATES + SPINNING: 54€
- AEROBIK + TONIFIKAZIOA (JUST PUMP): 36€
- BANAKAKO ENTRENAMENDUAK: 41€
- AEROBIK TXIKI: 25€
- TAI-CHI - CHI KUNG: 33€
- SABELEKO DANTZA: 38 €
- ARETOKO DANTZAK: 38 €

IKASLEAREN HILABETEA!

(25 URTE BAINO GUTXIAGO)

• KUOTETAN %15EKO BEHERAPENA



SAN JUAN JAIK 2005 GOTB-N


Gora San Juanak!

SAN JUANAK 2005
Saio berezia

Martitzenean, ekainaren 28an
21:00etan eta 22:30ean



Ikustekoa!



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZIA**

“R.E.L.E.”
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

**Margogintza
Dekorativo eta Industriala**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza •
Gasa •
Berogailuak •
Peetrolio-produktuak •
limatizazioa •

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA 943 793 187



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Zure lanak
iragartzeko
lekurik
aproposena

Arrasate Press

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005ko ekainaren 17a / Gehigarri berezia

Koadrilekin batera, jai herrikoiagoak



SAN JUANAK05

ARGAZKIA: ANDER GILLENVA

Z O R I O N A K !

Zure **Euskaltel** saltokian,
dei-festa!

Eskaintza mundiala daukagu San Joan festak ospatzeko. Euskaltel Leihoan alta ematen baduzu ekainaren 30a baino lehen, **DOAN** izango dituzu **lehen hiru hilabeteetan** Euskadi barruan egiten dituzun deiak.

Zoaz orain zure saltokira, eta gozatu dei-festarekin.

* Telefono finkoetara egindako deiak, Euskadi Ahots Tarifa Finkoa kontratatuz gero.

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L.

Errebal, 15 behea
Eibar
Tel.: 943 700 369

Maalako Errebala, 8 behea
Arrasate
Tel.: 943 712 781

Euskaltel
-en Banatzaile Ofiziala

*Arrasateko Udalbatzak
San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
arrasatear guztioi*



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

Goiena
Komunikazio Zehbitzua

TESTUAK
Irati Agirreazaldeg
Ubane Madera
Iker Barandiaran
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio
honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia




Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ALKATEARENAGURRA/ Inazio Lakuntza



Kaixo, mondragoetarrok: Denbora aurrera doan heinean uda badatorkigu eta, nola ez, San Juanak ere bai. Negua gogorra izan da, baina dagoeneko festarako giroa heldu zaigu. Gure egunerokotasuna alde batera utziz, bisitariak zein arrasatearrok jai hauetan ondo pasatzera eta parte hartzera gonbidatzen zaituztet. Horretarako denon gustuko aukerak izango baititugu.

Gaur egun une itxaropentsuak bizi baditugu ere, ezin ditugu ahaztu gure artean ez daudenak. Bihotzez opa dizuegu, bai udalbatzak baita neuk ere, ahalik eta udako solstiziorik ederrena igaro dezazuen. Ondo pasatu jaietan.

Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatea

ETABARRUAN...

SAN JUAN JAIK 2005

Alkatearen agurra	/3
Egitaraua	/4-5
Barrakak	/6
Pintura lehiaketa	/7
Umeak	/9
Erromeria dantza	/10
Txosnen egitaraua	/13
Arrasate Musikal	/15
Dragoi Jana	/16
Logela multimedia	/18
Zesta-punta	/22
Elliot Murphy	/24
Konpartsei omenaldia	/26
Zuzeneko musika	/28-29
Errekortadoreak	/30
Herri bazkaria	/31
Bertso saioa	/32
Dantza ikuskizunak	/34
Erretiratuei omenaldia	/35
Su artifizialak	/36
Arrasate Irratia	/37
Goiena Telebista	/38

Arrasate Press



ERRETRATUZAHARRA

San Juanetako lehengo ohiturak

Lehenagoko San Juanetan ohitura izaten zen antzinako lezkontzak antzezteak. Koadrilaka legiten zuten antzezpeneak, kalean. Eta idiek tiratutako gurdi eta guzti ateratzen ziren, baita arreoarekin ere. Jantziak ere asko zaintzen zituzten, argazkiak erakusten duen moduan.

Hain justu ere, jaietarako utzi diguten argazki horrek halako ezkontza horietako bat erakusten du. Erdiko kalean dago aterata, lehengo Urizar tabernaren parean; gaur egun, Kajoi dagoen lekuan. Antzezleak, berriz, honako hauek dira: emakumea Mertxe Trojaola eta gizona Benito Galdos. Horiexek ziren ezkongaiak. Atzean datozenen artean, berriz, emakumea Gloria Azkargorta da, ondoko gizona Jesus Mendizabal eta mikelate jantzita dagoena Rafael Mendikute. Ezkerrean, erdi ezkutuan dagoen hura Antonio Atxa da. Abade lanak egin zituen urte hartako San Juanetako antzezpenean.

Guri utzi diguten argazkian ikusten dugun ezkontza azkenetarikoa izan zen. 1957ko argazkia da. Gure berriemaileek, Muruamendiaraz



gozodendakoek, kontatu digute denborarekin herriko jaiak aldatuz joan zirela, plazako kioskoa kendu egin zutela... eta, besteak beste, antzinako ezkontzen antzezpene egiteari utzi egin ziotela koadrilek.

Halaber, gure berriemaileek ondo asko dute gogoan lehengo San Juanetan egoten zen giro paregabea. Batez ere, hirugarren egunean. Kontatu digute gaur egun herritar asko kanpora joaten den moduan, sasoi hartan

kanpotik jende asko etortzen zela San Juanetara eta hitzordu garrantzitsua izaten zirela jaiok herritarrendako.

Argazkia: Muruamendiaraz gozodenda.

EGITARRAUA

JAIETAKO EGITARRAUA

Egubakoitza, 17

18:00 Amaia Antzokian Arrasate Musikalen ikasturte bukaerako KONTZERTUA. Ikasle gazteek esku hartuko dute.

18:00 Seber Altube Plazan GIMNASIA ERITMIKOAREN ERAKUSTALDIA.

Zapatua, 18

Goizean zehar, Alde Zaharrean PINTURA LEHIAKETA Lehen Herensugea.

18:00 Monterron Kultura Etxean PINTURA lehiaketaren SARI BANAKETA.

19:00 HAUR TANBORRADA Arrasate Musikaleko Bandarekin. Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea, Herriko Plaza. SUDCek antolatuta.

22:30 Monterron parkean BERTSO SAIOA. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Jon Maia, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Enaitz Alustiza. Gai jartzailea: Lierni Altuna.

Domeka, 19

10:30 Nafarroa etorbidean bilduko dira haur dantzarien taldeak.

11:45 Kalean zehar Dantzari Taldeen KALEJIRAK eta DANTZAK.

17:00 Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz Dantza Taldeek antolatuta. Ondoren, DANTZALDIA.

Martitzena, 21

19:30 Monterron Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoan HITZALDIA-ELKARRIZKETA. *La exploración del espacio*, Ilatargi Elkarteak antolatuta. Ondoren, DANTZALDIA.

Eguena, 23

14:30 Koadrilen arteko bazkaria.

15:00 Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

16:00 Herriko Plazan ETXAFUEGOAK.

17:00 Maiatzaren Bata Plazan, BONBA JAPONIARRAK.

17:30 Herriko Plazan MAKALA jasotzea.



BURUHANDIEK, GURA BESTE LAN

18:00 Maiatzaren Bata plazan HAUR BERBENA Tipiti Tapata, musika kanta.

19:30 San Juan Bataiatzailearen Parrokian SALVE SOLEMNEA.

21:30 Maalako Errabalatik Herriko Plazaraino ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.

23:00 Nafarroa etorbidek irten eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN TANBORRADA. Ibilbidea: Nafarroako etorbidea, Laubide plaza, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko Kalea, Herriko Plaza. SUDCek antolatuta. Jarraian, Herriko Plazan, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.

Egubakoitza, 24

08:30 DIANA Arrasateko gaitariekin.

09:00 ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten, Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazan egongo den zezen plazan bukatuko da. Gero, zaleendako bigantxak

egizabal
oinetakoa

Ongi pasa San Juanak

ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601
BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228



HORTZ KLINIKA
UARKAPE

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

EGITARUA



EGUZKILARUREN JOLASPARKEAN UMEENDAKO AUTOAK JARRIKO DITUZTE

izango dira zezen plazan.

11:00 San Juan Bataiatzailea Parrokian, MEZA NAGUSIA.

11:00 ARRASATEKO ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

11:15 Arrasate Musikaleko MUSIKA

BANDAREKIN kalejira.

12:00 Herriko plazan ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa dantzatu dute.

12:30 Abaroan 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI OMENALDIA EGITEA.

13:00 Monterron Parkean KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik. Egitaraua:

<i>El Caserio</i>	J.Guridi
<i>Amaya</i>	J.Guridi
<i>Charleston Forever</i>	M.Peeters
<i>Maite</i>	P.Sorozabal
<i>Star Trek</i>	Goldsmith, Mac Carthy
<i>Disney Fantasy</i>	N.Iwai
<i>Gora Arrasate</i>	Juan Artzamendi
<i>San Juan Ereserkia</i>	J. Artzamendik moldatua

19:00 Kalejira ARRASATEKO GAITARIEKIN.

19:30 Zezen plazan Errekortadoreen Erakustaldia, Incansables Txarangak girotuta.

20:00 Txosna-gunean BERTSOLARIAK eta sagardo dastatzea.

21:00 Herriko plazan DRAGOI JANA. Bertan erretako dragoia dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AED, AEK, eta Monte eta Iturriotz tabernatan. Prezioa, 12 euro. Antolatzaileak: AED eta AEK.

23:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak, Pirotecnia Astondoaren eskutik.

23:30 Herriko Plazan ERROMERIA, Kardantxa 4.0 taldearekin.

23:30 Monterron parkean, *KLONK hip-hop dance* IKUSKIZUNA, Addictos breakdance & Logela multimedien eskutik.

01:00 Txosna-gunean KONTZERTUA: INOREN ERO NI eta ANGER taldeekin.

Zapatua, 25

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN

09:00 ENTZIERROA: Ferrerías-Erdiko kalea-Iturbide-Laubide plaza. Gero, bigantxak, zezen-plazan.

10:00 Umeak esnatzeko DIANA izango da.

11:45-12:00 Seber Altubetik pasatzen diren umei bõrlak, marakak eta banderatuak banatuko zaizkie Eguzki Laruri ongietorria egiteko.

12:00 EGUZKI LARURI ongi etorria Zaldibarren;

gero jolas parkea zabalduko dute, 14:15ak arte.

12:30 Arrasateko Trikitilariekin KALEJIRA.

13:00 Herriko kaleetan zehar TRIKIPOTEOA

16:30-18:30 Zaldibarren Eguzki Laruren

JOLASPARKEA irekiko dute berriro.

18:30 Zaldibarren POTXIN ETA PATXIN Herri Tropikala ikuskizunarekin.

18:00 Zaldibarren ZIRKU KALEJIRA

Sebastopoleko Titiriteroekin.

19:00 Txosnetan AEROBITOIA.

20:00 Herriko kaleetan KALE ANTZERKIA

Trapu Zaharra taldearekin: *El pisito*.

22:00 Uarkapen Zesta Punta jaialdia.

22:30 Herriko Plazan DANTZALDIA

Tarantella Orkestrarekin.

22:30 Monterron Parkean, KONTZERTUA Elliot Murphyekin.

01:00 Txosna-gunean KONTZERTUA

PASAJEROS taldearekin.

Domeka, 26

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea. Gero, bigantxak.

11:00 ERRALDOIEN KONTZENTRAZIOAREN hasiera. Erraldoien kalejira Zaldibarren hasiko dute. Konpartaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldia.

13:00 Herriko Plazan ERRALDOIEN KONTZENTRAZIOA.

14:30 Zaldibarren HERRI BAZKARIA.

18:00 Herriko Plazan Haur Antzerkia. Panta Rhei Taldea: *Txaribari* ikuskizuna eskainiko dute.

18:00 Zaldibarren, ARKU TIROKETA LEHIAKETA. Arku tiroketa praktikatzeko aukera ere izango da.

19:30 Herriko Plazan SOKA DANTZA.

20:00 Herriko Plazan TRIO CHAMUYOren emanaldia. Tangoak eta milongak, dantzarekin.

20:30 Txosna-gunean ANTZERKIA. *Ez haiekin...ezta haiek gabe ere* ikuskizuna Jon Urrazaren eskutik.





Erdiko kale 14 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 94

MURUAMENDIARAZ

GOZOTEGIA

Jai goxo-goxoak izateko

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34 Ondo pasau San Juanak!



BARRAKAK

Iaz bezala, barrakak Maiatzaren Bata plazan ipini beharko dituzte

Bestetan baino barraka gutxiago etorriko dira; besteak beste, leku aldaketa horrengatik

UBANE MADERA

Gazte eta nagusiendako barrakarik ez da izango aurtengo San Juanetan. Umeendako, berriz, lau aparatu etorriko dira. Ingurukoak baino prezio merkeagoan ipiniko dituzte barrakak: euro batean.

Txurro-denda, *ahateak* arrantzatzeke jolasa eta umeendako lau aparatu: Txiki Park, umeendako lapikoa, ohe elastikoak eta Skalextrik. Barraka horiek etorriko dira San Juanetarako, Maiatzaren Bata plazara. Ekainaren 27ra arte izango dira han.

GAZTE ETA NAGUSIENDAKO, EZ Gazte eta nagusiendako barrakei dagokienez, ez dira etorriko, San Juanetan, behintzat. Hala, bada, faltan igarriko ditugu Rodeo Show, nagusiendako lapikoa eta matxinsaltoa, esaterako.

Kontua da iaz lehengo aldiz kokaleku



Umeendako lau aparatu etorriko dira aurtun: Txiki Park, Skalextrik, umeendako lapikoa eta ohe elastikoak.

berrian ipini zituztela barrakok (Maiatzaren Bata plaza), eta barraken ugazabak ez zirela batere konforme geratu emaitzarekin. Euren esanetan, besteak beste, jaiak herria-

Iaz zenbait barrakaren ugazabak ez ziren konforme geratu, besteak beste, barrakendako kokaleku berriarekin

ren erdiko aldean ospatzen dira bereziki eta jendeak ez du Maiatzaren Bata plazaraino joateko joerarik. Gauzak horrela, Arrasateko Udalarekin harremana apurtu zuten

eta San Juanetan ez etortzea erabaki zuten.


UMEENDAKO IKUSKIZUNA

Horren harira, eta jende-ari barraketarako bidea zelanbait erakusteko, Udaletik jakinarazi digute San Juan bezperan, ekainaren 23an, umeendako ikuskizun berezia egingo dutela Maiatzaren Bata plazan.

BARRAKAK, MERKEAGO

Horrez gainera, Udaletik jakinarazi digute baita ere, euro batean kobratuko dituztela barrakak. Inguruan baino prezio merkeagoa da hori. Izan ere, beste leku batzuetan euro eta erditik hasi eta hiru euro arateko prezioak ipintzen dizkiete barrakei (Bergaran, esaterako). Hain justu ere, 1987tik hona Arrasateko Udalak bide aitzindaria erabili du umeendako barrakak merkeago ipini ahal izateko: umeen aparatuen ugazabei ez diete kobratzen lurzoruaren erabilera, eta horren trukean, barraken ugazabek prezioa merkatu egiten dute.

ARTXIBOA



**CANAS -
ESTEBAN S.L
ERAIKUNTZAK**

San Juan jai zoriontsuak
arrasatear guztioi!

AGERIKO PINTURA LEHIAKETA

Margolari onenak herriko alde zaharrean

Goiz osoa izango dute margolariek Arrasateko txokoak euren mihiseetan islatzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Arrasate Margo Taldeak biharko, zapatarako, I. Dragoi Ageriko Margo Lehiaketa antolatu du. Inguruko zein kanpoko marrazkilari onenak elkartuko dira herrian.

Pintura kalera ateratzea izan da lehiaketa antolatzearen helburua. Felix Aiala Arrasate Margo Taldeko presidentek esan digunez, "gure asmoa da jendeak kalean paseatzen dabilela ikus dezan nola lan egiten duten pintoreek. Margoaren mundua herri-za baldu gura dugu".

MARGOLARI ONENAK

Inguruotako margolari onenak Arrasaten elkartzea da antolatzaileen asmoa. "Lehiaketa hasten den unera arte ezin da jakin zenbat margolari izango diren, baina 50-60 etortzea espero dugu. Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriko dira,

Badira hamar urte inguru ageriko pintura lehiaketarik egin ez dela. Aurtentzen, ordea, ohitura berreskuratu eta Arrasate Margo Taldeak Tamayo paperdendarekin eta Udalarekin batera I. Dragoi Pintura Lehiaketa antolatu du.



Margolariek edozein teknika erabili ahal izango dute margolanak egiteko.

eta baita Asturiastik, Madrildik eta Kataluniatik ere. Arrasateko parte-hartzaileak hamar inguru izango dira".

Partaideei 08:00etan mihise zuri bana emango diete eta 14:30ak arte izango dute teknika librean euren marrazkiak egiteko.

Margolari guztiak Arrasateko alde zaharrean egongo dira.

Margolariak onak izango dira eta sariak ere ez dira nolana hikoak izango. Lehenengoak 1.500 euro eta txapelak jasoko ditu; bigarrenak 750 euro; eta hirugarrenak 420 euro. Arrasateko onenak, berriz, 300 euro. Gazte eta umeendako ere egongo da saririk.

Arrasateko alde zaharrean egongo dira margolariak; antolatzaileek espero dute 50-60 partaide izatea lehiaketan

Zapatua, 18
08:00etatik
14:30era

Alde zaharrean

Arrasate Margo
Taldearen
eskutik

Aukeratutako margolanekin erakusketa

Lehiaketara aurkeztu eta margolari profesionalen osatutako epaimahaiak aukeratutako lanekin erakusketa egingo dute. Aukeraketa egin artean Monterronen egongo dira koadroak. Margolan gehienak ikusgai izango dira domekatik aurrera Monte eta Kajoi tabernetan, hamabost egunez. Ikusgai ez ezik egileek nahi izanez gero salgai ere ipiniko dituzte.

Saritu gabeko lanak, berriz, uztailearen 2a baino lehen batu beharko dituzte egileek; bestela, antolatzaileen esku geratuko dira-eta.

Arrasate Margo Taldeaz gain, badira pinturan jarduten duten beste hainbat talde ere, eta guztiak antolatzen dituzte urtean barrena hainbat pintura erakusketa herrian.




**OBRA AMAIERAKO GARBIKETAK
GARBITZE ETA MANTENTZE LANAK:
ENPRESAK
BULEGOAK
GARAJEAK
KOMUNITATEAK
ETA ABAR**

Gora San Juanak!

Intxaurtxueta 16 behea **ESKORIATZA**
Tel.: 943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com



Zenbaki

AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es



gelatu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**Eraman
dotoretasuna
zure etxera**



UMEAK

Jai tropikala Eguzki Laruren omenez

Zaldibar jolasleku erraldoia izango da; puzgarriak, kartak eta tailerrak jarriko dituzte bertan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Urteroko ohiturari jarraituz, San Juane-tako umeen egunera-ko Txatxilipurdik Eguzki Laruren jaia antolatu du. Aurten ukitu tropikala eman-go diote, gainera.


Zapatua, ekainaren 25a, umeen eguna izango da Arrasaten. Egun horretan herriko txikiendako hainbat ekitaldi izango dira. Hala ere, txikiekin batera pertsonaia handi bat izango da eguneko protagonista: Eguzki Laruri.

Arrasateko haurrak eta gaztetxoak esnatzeko herrian barrena diana izango da 10:00etan hasita. Seber Altube plazan elkartuko dira umeak 11:45ean, eta ludotekan prestatutako marakak eta banderatoak gertu ipiniko dituzte, jaietan umeen aurpegiak alaitzen dituen lagunari ongi-etorria egiteko.

Zaldibarren agertuko da 12:00etan Eguzki Laruri. Umeek abestu eta dantzatu egingo diote.

JOLASAK ETA TAILERRAK

Ondoren, txikiek jolas egingo dute, puzgarriak eta kartak autoak egongo baitira 14:15ak bitartean.



Umeak eta Eguzki Laruri izaten dira eguneko protagonista nagusiak.

Bost tailer ere izango dira umeek ongi pasatzeko: aurpegi margotzea, globoflexia, eskulanak, argazki digitala eta tatuajeak.

Arratsaldean ere, 16:30etik 18:30era bitartean jaiak jarraituko du. Baina ukitu berezia izango du, jai tropikala izango baita.

Limonada erraldoia gertatuko dute guztiendako ontzi handi batean, eta baita pintxo tropikalak ere. Hori guztiori musika tropikalez girotuta.

Potxin eta Patxin pailazoek 18:30ean Herri tropikala ikuskizuna eskainiko dute jaia amaitzeko.

Hala, hurrengo urtera arte agur esango diote umeek Eguzki Laruri.

Aurten, Zaldibarko pilotalekuan ohiko puzgarriez gain jai tropikala izango da arratsaldean, limonada erraldoi eta guzti

Zapatua, 25
12:00etan

Zaldibarren

Eguzki Laruri ongi-etorria eta ondoren jolasparkea

Umeendako dantzaldia eta antzerkia

Herriko txikienek Eguzki Laruren egunean ez ezik izango dute jaietan euren beste ikuskizunik ere.

Ekainaren 23an, San Joan bezperan, haurrendako dantzaldia izango da 18:00etan Maiatzaren Bata plazan. *Tipiti Tapata, musika kanta* da dantzaldiaren izena.

Domekan, ekainaren 26an, berriz, haur antzerkia izango da 18:00etan Herriko Plazan. *Panta Rhei* taldeak *Txaribari* ikuskizuna eskainiko du. Familia euskaldun, arabiar, txinatar, perutar eta afrikar bana bizi diren auzo-komunitate berezi batean gertatzen diren gorabeherak izango dira antzezlanaren ardatz. Hainbat arrazaren arteko elkarbizitza posible dela adierazi nahi diete horrela umei.

Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta

San Juan zoriontsuak !

Otalora Lizentziaduna 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

AREITIO kirolak



San Juan zoriontsuak izan!

Zarugalde 35 Tel: 943 79 38 38

20.500 ARRASATE



DANTZA

Betiko erromeria formatu berrian plazan

Ohiko erromeria dantzez gain, Europako beste hainbat dantza egiteko aukera izango da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Erromeriak azken urteotan gainbehera doazela badirudi ere, Arrasaten saiakera bat egin gura dute; herritarrak dantzan ipiniko dituzte Herriko Plazan.

Gaur egun erromeria giroa pixkanaka galduz goazela eta, Portaloi elkarteak erromeria antolatu du. Dragoi Janaren ostean, Herriko Plaza erromeria giroz jantzikoa da.

"Erromeriak fandango eta arin-arinean geratu

dira, eta jendea ez da ausartzen plazan dantza egitera. Gure asmoa da dantza errazak egitea, jendeak erromerian parte hartzeko aukera izan dezan", esan digu Xalba Dalmau Portaloi elkarteko zuzendariak.

IKASTAROTIK PLAZARA

Herriko jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dute. Horretarako, ikastaroa antolatu zuten jendeak dantzan ikas zezan. Ikastarotan 20 lagunek hartu dute parte, baina plazan edozeinek izango du dantzarako aukera.

Mota guztietako dantzak izango dira. Hasi ohiko trikiti piezetatik eta



Lau musikari daude Kardantxa 4.0 taldean: Maixa Lizarribar, Ines Osinaga, Mikel Atxega eta Igor Telletxea.

Europako dantzetara. Hogeitik gora pieza joko ditu Kardantxa 4.0 taldeak: muxikoak, jauziak, polkak, baltseak...

Hainbat dantzatan, gainera, gidariak izango dira herritarrei azaltzeko zein pauso eta nola egin behar dituzten.

Xalbak herritarrak gonbidatu gura ditu erromeriarira: "Oso dantza errazak dira, askotarikoak, eta musika ere alai da. Erromeriarekin kaleko giroa suspertu nahi dugu. Horretarako, jendea animatu behar dugu lotsak alde batera utzi eta halako ekitaldietan parte hartzera".

Beraz, guztiak plazara dantzara!

Hogeitik gora pieza dantzatu ahal izango dituzte erromerian; hasi ohiko trikiti piezetatik eta Europako dantzetara

Egubakoitza, 24
23:30ean

Herriko Plazan

Erromeria,
Kardantxa 4.0
trikiti talde
berriarekin

Kardantxa 4.0 talde berria

Erromeria horretarako propio sortutako musika taldea da Kardantxa 4.0.

Arrasaten trikiti eskolak ematen diharduen Maixa Lizarribarrek soinua txikia eta panderoa joko ditu; Ines Osinaga arrasatearrak ere tresna horiekin jardungo du. Mikel Atxega anoetarrak eta Berako Igor Telletxeak baxuan eta perkusioan jardungo dute hurrenez hurren.

Maixa Lizarribarrek esan digunez, "euskal kutsuko erromeria izango da. Dantzarako kantuak joko ditugu batez ere, baita euskal abesti zaharrak ere".

Izenari buruz galdetuta esan digu kardantxa lore bat dela, eta hori aukeratu izanak ez duela arrazoi berezirik. "Fase asko dituen lorea da eta gure taldea ere hasiera fasean dago. Gerora oraindik ez dakigu zer gertatuko den taldearekin".



kurruxko

Javier Ayani Aranburuzabala
Okindegia - Urdaitegia - Gozotegia

*Ondo pasatu
San Juanak!*

Bañez Doktorea 12 • ARRASATE
Tel.: 943 79 22 57

*Lantalde osoa,
helbide berrian
zure zerbitzura!*

NACEX



EUSKONACEX S.A

San Andres auzoa
Azeri kalea 7
20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 92 77
Faxa: 943 79 99 21



ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Zuekin lanean
kalitate eta konfiantza osoz.

*San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu*

Deitu konpromisorik gabe:

Tel.: 943 79 67 78. Faxa: 943 77 10 09

zutarri@infonegocio.com

Zerkaosteta 17 · 20500 ARRASATE

*Paraje eder
baten kokatua*



*Atsedenerako
behar den
guztiarekin*



*Eupresa
bilerak
egiteko leku
egokia*



*Dasta ezazu
gure menurik
goxoenak*

Arteaga

Landetxea


Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak
orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

TXOSNAK

Hiru barra eta ekitaldi ugari txosnetan

Monterron parkearen azpiko aldean hiru txosna ipiniko dituzte: bi edariek eta bat jatekoarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bost taldek bat egin eta txosnen gunean jai giroa ipiniko dute aurtengo jaietan ere. Horretarako hiru txosna jarri eta ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Txosna-guneak aurtenera egitarau oparoa gertatu du. Iazko bideari jarraituz, bost talde elkartu eta guztien artean hiru txosna ipiniko dituzte: bi edariendako eta jatekoarendako hirugarrena. Txosna-gunean, Segi, Gestorak, Euskal

Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta Batasuna taldeek bat egingo dute..

JAI PARTE-HARTZAILEAGOAK
Taldea horietako kideak pozik azaldu dira azken urteetan ez bezala aurtengo txosna-guneko ordezkariak parte hartu dutelako jaiak antolatzen. Batzar batean herriko hainbat taldetako kideak izan ziren eta denen artean gertatu zuten egitaraua. Horrela, jaiak "herriko koiagoak eta parte-hartzaileagoak" izango direla esan digute txosnen gunekoek.

Txosnetan ekitaldi ugari izango da. Koadrilen bazkariak irekiko du egitaraua eta horren ostean makala



ANDER GILLENIA

Besteak beste, kontzertu interesgarriak egingo dituzte txosnen gunean. Argazkian, Numen.

igoko dute herriko gazteek. Ohitura aspaldikoa bada ere, azken urteotan Udalarrekin izandako ika-mikak direla eta, ez dute gazteek

ekintza horretan parte hartu, baina aurtengo berriz helduko diete usadioari.

Aldarrikapenerako ere izango da aukerarik. Izan

ere, euskal preso politiko eta errefuxiatuen aldeko manifestazioa eta elkarretaratzea izango dira jaietan. Bestalde, kontzertuak, antzerkia eta aerobitoia ere antolatu dituzte.

TABERNAK

Alde Zaharreko tabernek ere egitaraua gertatu dute jaietarako; besteak beste, kontzertuak izango dira.

Ohiturari jarraituz herriko gazteek elkarrekin bazkaldu eta ondoren makalaren igoeran hartuko dute parte

Txosnen guneko egitaraua

EGUAZTENA, 23

14:30

Koadrilen bazkaria.

17:30

Makalaren igoera.

01:00

Euskal preso politiko eta errefuxiatuen aldeko manifestazioa Seber Altubetik.

EGUBAKOITZA, 24

20:00

Bertsolariak eta sagardo dastatzea.

19:30

Euskal preso politiko eta errefuxiatuen aldeko elkarretaratzea Herriko Plazan.

01:00

Kontzertua: Inoren Ero Ni eta Anger, txosnen gunean.

ZAPATUA, 25

13:00

Trikipoteoa herriko kaleetan.

14:30

Herri bazkaria txosna-gunean.

19:00

Aerobitoia txosnetan

01:00

Kontzertua: Pasajeros txosna-gunean

DOMEKA, 26

20:30

Antzerkia txosna-gunean: *Ez haiekin... ezta haiek gabe ere.*


Gipuzkoa etorbidea 6, Legarre Pabilioia

Tel: 943 79 96 53 Fax: 943 71 26 26

zaldibar@ibercom.com

ZALDIBAR

errotulazio zerbitzuak



aholkularitza, garapena eta kalitatea akaberetan

Errotulazio itsasgarria • Ibilgailuen errotulazio integrala • Barruko zein kanpoko seinalizazioa

Grabatuak: inox.-letoa-aluminioa-plastikoa • Fresaketak: Metakrilatoa-DM-PVC • Letra gorputzdunen fabrikazioa

Display eta moduloak

ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz




KEPA URRA



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



IGOR LETONA



TXUS GOIKOETXEA




JOSU ARKAUZ



UNAI PAROT



GORKA AZTIRIA



GAIZKA OLABARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



SAIOA ALZUA ETA GAIZKA AZKARATE

*Alaitasuna ta jai giroa
ez dira izango aparte
baina halere falta direnak
oroitu nahi genituzke
Eperra, Ion eta beste guztiak
nahi doguz hemen ta aske
gure herria maite dugunez
ez dugu etsiko bape
borroka eta jaia uztartuz
helburuak lortu arte*

MUSIKA



ARTXIBOA

Herritarrek oso gustuko dituzte Musika Eskolako lagunen emanaldiak.

Musika Eskolakoak, gau eta egun

Arrasateko Musika Eskolakoek Danborradan, Errementeri Dantzan eta bestelako ekintzetan esku hartuko dute

IKER BARANDIARAN

Zaila da Musika Eskolako lagun bako jairik irudikatzea. Saltsero hutsak dira eta jaietako hainbat ekintzatan izango ditugu bazterrak alaitzen.

Urtero moduan, Arrasateko Musika Eskolako Bandako lagunak ez dute ia atsedunik hartuko. Ia egunero izango dute zereginen bat, eurek bakarrik edo beste ekitaldiren baten laguntzen.

Bihar, zapatua, Haur Danborrada lagunduko dute Nafarroa etorbideetik Herriko Plaza heldu arte. Horren ostean, udaletxe parean ere hainbat musika pieza joko dituzte. Ziur umeek laguntasun hori eskertu egingo dutela.

Eguaztenean, San Juanetako egitarautik kanpo egongo den arren, Eskolako kantuko ikasleek kontzertua egingo dute Musika Eskolan. 18:00etan izango da, eta ikasturtean ikasitakoak erakutsiko dute.

Eguenean, San Juan bezperan, Eskolako Bandak hitzordu garrantzitsua dauka herriko dantzarekin. Maalako Errabaletik Herriko Plazara Errementari Dantza girotu beharko dute. Badakigu gogoz egiten dutela lan hori.

MONTERRONGO KONZERTUA

San Juan egunean alde batetik bestera ibiliko dira. 11:15ean, Bandak kalejira egingo du alde zaharrea barrena. 11:30ak aldera, erraldoi, kiliki eta gaitariekin bat egingo dute, eta azken horiekin pieza berezi bat joko dute: Txomin Muxikaren *Aitziber eta Jon*, hain justu. Erraldoiak dantzan jarriko dituzte, jakina.

13:00etarako Monterrongo harmailak entzulez beteta izango dituzte, eta urteroko emanaldi berezia egingo dute. Honako piezak eskainiko dituzte: Guridiren *El caserío* eta *Amaya*, Peeters-en *Charleston Forever*, Sorozabalen *Maite*; *Star Trek*, *Disney Fantasy*, eta behar den moduan bukatzeko, Juanito Artzamendiren *Gora Arrasate* eta *San Juan*.

Egubakoitza, 17
Amaia Udal Antzokian

Egubakoitza, 24
Monterronen.

Baten, ikasleek eta bestean, Bandak

Ikasturtea bukatzeko, jaia

Gaur, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako hainbat taldek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute Amaia Udal Antzokian. 18:00etan izango da, doan.

Kontzertu berezi horretan hainbat taldek esku hartuko dute: **Banda Txikiak, Orkestra Txikiak, Orkestra Handiak, Talde Instrumentalak eta Tailerreko umeek**, hain zuzen ere. **Guztira, 130 musikari baino gehiago izango dira taula gainean.**

Musikari nagusienak 16 urte ditu, eta tailerreko umeak 4 eta 5 urte bitartekoak dira. Besteak beste, **Queen-en *We are the champions***, Irlandako musika eta euskal musika joko dituzte.

San Juan eguneko kontzertuan, Monterronen, Lore Gazteak dantza taldeak, eta Eskolako txistulariek eta Ballet taldeak ere esku hartuko dute

Altzariak eta dekorazioa
Ondo pasatu San Juanak!

Etxe
mobiliario y decoracion

Ferrerias 17 Tel. eta faxa: 943 79 03 17

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
Urdaiazpikoak
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Maalako Errabala 27-behea ARRASATE
Tel.: 943 79 59 99
E-posta: udalatx@udalatx.com
Webgunea: www.udalatx.com

Udalatx
InmobiliariA

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

Etxebizitza berriak salgai Arrasaten
San Juan zoriontsuak izan!

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
Gabon zoriontsuak!!!

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

eya Ondo pasatu San Juanak

etxetresna elektrikoak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

DRAGOI JANA

Hamar urte bete ditu aurten Dragoi Janak

Bostehun lagunendako lekua gorde dute Dragoi Janean; 12 euroren truke, dragoi txuletak guztiendako

UBANE MADERA

Muruko dragoiaren txuletak ezin dira falta Arrasateko San Juanetan. Ekainaren 24an da hitzordua, 21:00etan, Herriko Plazan. Eurria bada, berriz, Uarkapen.

Dragoi Janerako txartelak dagoeneko salgai daude; guztira, 500. Iazko prezio berean ipini dituzte, 12 eurotan; Monte eta Iturriotz tabernetan, AEKn edo AEDn eros daitezke. Komeni da txartelak gastatu baino lehen erostea;

edozean ere, guztiak saltzen ez badituzte, ekainaren 24an bertan ere erosi ahal izango dira.

Menua ohikoa izango da: dragoi txuletak, piperrak, patatak, gazta, irasagarra eta kafea. Guztia sukaldari prestuek bere puntuari eginda; Igor Otaui, Roberto Beltran de Gebara, Uribealzo, Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*, Balentin Moreno eta Imanol Zubizarreta ibili ohi dira txingar artean.

ERROMERIAREKIN ELKARTZEKO Lehen esandako moduan, 21:00etan hasiko da Dragoi Jana, eta antolatzaileen asmoa da 23:00ak ingurura-



IKER BARANDIARAN

Besteak beste, euskal kantuak abesteko ohitura dute Dragoi Janean.

ko amaitzea: "Nahi duguna da horren ostean egongo den erromeriarekin lotzea Dragoi Jana, Portaloikarteak antolatutako erromeriare-

kin. Dragoi Janean giro euskalduna egoten denez eta erromerian lehengo dantzak eta egingo dituztenez, euskal giroa luzatze aldera

dei egiten diogu jendeari dantza egiten geratzeko".

AEDk eta AEK-k antolatuko dute Dragoi Jana azken urteotan, Arrasateko historia, mitologia eta euskal giroa uztartzeko eta indartzeko asmoarekin. Gazte talde batek bultzatutako ekimena izan zen. Haien ordezkari hartu dute gaur egungo antolatzaileek, arrakasta handiarekin.

Antolatzaileen asmoa da Dragoi Jana 23:00ak ingururako bukatzea, gero, erromeriarekin bat egiteko


**Egubakoitza, 24
21:00etatik
23:00etara**

Herriko Plazan; eguraldi txarra bada, Uarkapen.

Giro euskalduna

Gazteen ekimena

AEDren baitako gazte talde baten eta Orkatx Skaut taldearen arteko elkarlanetik sortu zen Dragoi Jana, 1995ean: "Euren ideia izan zen egitea halako herri afari bat, giro euskaldunean. Hala, Arrasateko ukitua emateko, afariko txuletei dragoi txuleta izena ipini zieten eta handik atera zen Dragoi Jana". Hain zuzen ere, horixe nabarmendu gura izan digu Irati Pagoagak, AED Gazteak taldeko arduradunak, gazteen ekimenez sortutako ekintza dela Dragoi Jana eta gaur egun halakorik nekez egiten dutela gazteek: "Kontua da gaur egun ikusita gizartean zer dagoen... Orain dela hamar urteko eta oraingo gazteak konparatuta, ikusten da oraingoek askoz ere pasibotasun handiagoa dutela. Ez dute lehengoek filosofia berri jarraitzen".




FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

ETXE-LAN S.COOP
BANATZAILE OFIZIALA

- Ostalaritza
- Garbitegia
- Hotz industrialia


Otalora 14 behea. ARRASATE
Tel.: 943 79 12 30
Faxa: 943 71 25 50
satanoar@fagorsat.com



AMAGARA

Erdiko kalea 54. Arrasate. 943 79 09 09

Laser bidezko depilazio zentro espezializatua



- Diagnostiko pertsonalizatua
- Gorputz tratamenduak
- Aurpegi tratamenduak
- Hidromasajea
- Depilazioa
- Begien, bekainen eta ezpainen makillaje iraunkorra
- Manikura eta makillajea
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma (araudi ofizialak eskatzen duen ziurtagiriarekin)
- Belztu artifiziala
- Kontsulta medikoa: aurpegi eta gorputz terapiak
- Dietetika eta nutrizio kontsulta

San Juan jai zoriontsuak!

Aurpegi eta gorputz tratamendu bereziak



MARGA jantzi denda



Ondo pasa
San Juanetan

Iturriotz 21 • ARRASATE • Tel.: 943 71 17 40
San Pedro 20 • BERGARA • Tel.: 943 76 05 37



HIP-HOP IKUSKIZUNA

Dantza, musika eta irudia ikuskizun bakarrean

Addictos Breakdance eta Logela Multimedia taldeek elkarlanean gertatu dute emanaldia

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hip-hopa nagusituko da egubakoitz gauean Monterronen. Addictos Breakdance taldearen pausok eta Logela Multimediaren produkzio digitalek bat egingo dute

Ikuskizunaren izenburua *Klonk* da eta dantza garaikidearen eta ikus-entzunezkoen arteko nahasketa du oinarri.

Hip-hop dantzez Addictos Breakdance taldea arduratuko da; soinuaz eta irudiez, berriz, Logela Multimedia.

Klonk giza genomaren kodifikazioaren gaineko gogoeta da. Izan ere, aurkikuntza horrek, manipulazio genetikotik abiatuta, bide berriak zabaldu ditu sor-kuntzari dagokionez.

Ikasle bat da ikuskizun horretako protagonistista. Fotokopiak egitera doanean ustekabearen bere eskua-aren fotokopia egingo du. Esku hori eszenatokira irtengo da eta gazteak esku horrekin egingo du dantza. Zientziak eskaintzen dizkion baliabideez konturatu eta gorputz osoaren foto-

kopia egingo du ondoren; horrela, klonak irtengo dira eta elkarrekin egingo dute dantza. Modu horretan, klonazioaren gaia zein elikagai transgenikoena landuko dituzte.

Hori guztiori, dantzaren, egungo musika doinuaren eta paisaia digitalen bidez eramango dute taula gainera.


DANTZA

Breakdance delakoa 60ko hamarkadan hip-hop musikaren baitan sortutako dantza mota da; egun, gure inguruan indarra hartzen ari dena.

Addictos Breakdance taldeak taula gainera eramango ditu dantza horiek. 1995ean sortutako talde horretan dantzari oso onak daude, Espainiako onen-tarikoak, hain zuzen ere. Nazioarteko hainbat sari jasotakoak dira, gainera. Estilo freskoa eta berri-tzailea dakarte eta break-danceko pausoekin funky, jazz eta house dantzak nahasten dituzte.

MUSIKA ETA IRUDIAK

Hainbat musika tresnarekin sortutako melodia eta erritmoak izango dituzte lagun dantzariak: pianoa,



Breakdancea, irudia eta soinua batuko dituzte ikuskizun bizi horretan.

gitarra, txalaparta, panderoa, biolina, akordeoia zein ahotsa bera. Logela Multimedia musika nahasketekin jolas egiten du, betiere musika elektronikoan oinarrituz, baina ahaztu gabe publiko zabalarentzat ari direla lanean.

Eszenografiak ere Logela Multimedia arduratuko da. Fotokopiagailu erraldoia izango da eszenatikoko oinarria. Pantaila han-

di batean irudiak proiektatuko dituzte. Irudi handi bat pantailan islatuko dute eta beste bat fotokopiagailuaren gainean. Dantzariak ere bertan egingo dute dantza eta euren irudiak azpiko aldetik grabatu eta haiek ere pantailan ikusi ahal izango dira. Beraz, ikusleak bi ikuspuntutatik ikusiko du nola dantza egiten duten Addictos Breakdance taldekoak.

Hainbat unetan paisaia digitalak ikuslearengana aterako dira, eta errealtatearen eta gune birtualaren arteko nahasmena sortu.

Hip-hop musika gustuko dutenek aukera paregabea izango dute egubakoitzean emanaldi horrekin gozatzeko.

Klonk: dantza, musika eta irudia; hirurak bat eginda ikuskizun berri-tzailean.

Addictos Breakdance taldean Espainiako hip-hop dantzariak onen-tarikoak daude; nazioartean sariak jaso dituzte

Bi ikuspuntutatik ikusi ahal izango da nola dantza egiten duten; horretarako pantaila eta kamerak erabiliko dituzte

Egubakoitza, 24
23:30

Monterron parkean

Addictos
Breakdance &
Logela
Multimedia

Logela Multimedia

Elorrioko hirukote batek osatutako taldea da: Ander Garaizabal, Gorka Molero eta Imanol Garaizabalek; bi musikari-informatikari eta bideo sortzaile bat. Hala ere, euren proiektuetan beti izaten dituzte laguntzaileak. Oraingoan, Migel Alonsok soinu teknikari lanetan jardungo du, Itziar Irazabalek argiek eta Karlos Gomezek ikus-entzunezko teknikari.

Produktu digitalak sortzea eta ondoren taula gainera eramatea da euren helburua.

Euren lehen lana Non Demontre rock taldearen *Belarritakora sartu CD-ROMa* eszenara eramatea izan zen.

Ondoren, *Link Concert* sortu zuten, musika klasiko eta elektronikoa nahastuz. Urte berean *Break On Stage* lehiaketa ipini zuten abian, gaur egun nazioarteko jaialdi bihurtu dena.

Gero, *Ohe handi bat* dokumental interaktiboa editatu zuten eta gaur egun, besteak beste, hori eszenaratzan dihardute.

Klonk ikuskizunaren oinarrian, berriz, euren sortutako *Break On Stage04* DVDa dago.



DO
certificación

E.R. 02/518
ISO 9001:00

ACREDITADO POR ENAC

Kataide industrialdea 18 · 110 posta-kutxa · ARRASATE

Tel.: 943 79 10 20 · Faxa: 943 79 08 17 · jubarateak@euskalnet.net

JUBAR®

- Garajeko atea
- Aluminiozko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak

- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak





Carrascal, S.L.

BERTAN EGINDAKOAK:



ONDO PASAU SANJUANAK!



LEGARRE PAB. 1. SOLAIRUA - Tel. eta faxa : 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com



BAZAR TXINATARRA

Ondo pasatu San Juanetan!

Eskaintza zabala:

- liburuak
- koadroak
- garbiketarako produktuak
- dekorazioa
- burdineria
- drogeria
- jostailuak
- osagarriak
- eta abar

Ordutegia, astelehenetik igandera:

09:30etik 14:30era

17:00etatik 21:00etara

BAZAR TXINATARRA

Olarte kalea 35, ARRASATE

Zatoz eta gure

eskaintzaz goza ezazu!



Zer egingo duzu

**ILUNTZ - BENGUA - BASATI - BOLIÑETE
LORA - RUMBA - JAI ZALE**





sanjuanetan?

ERATI - ITZALA - BIONA - GURE LEKU -
BRANKA - AMETS - MONTE



KIROLAK

Puntista onenak Uarkapen, zesta-punta norgehiagokarako

Domekan, hilaren 25ean, 22:00etan hasiko da zesta-puntako jaialdia; sarrerek, aurrez erosita, hiru euro balio dute

XABIER URZELAI

Zesta-punta, arku tiroketa, aerobitoia eta gimnasia erritmi-koa izango ditugu jaietako kirol eskaintzak. Ez dira ohiko kirolak, eta horregatik izan daitezke beste kirol asko baino erakargarriagoak.

Ekainaren 25ean, zapatua, egingo dute jaietan Uarkapen egongo den ekitaldi ikusgarriena: zesta-punta jaialdia. AUKEAren eta Jai Alai Sport taldearen eskutik lehen mailako puntistak izango dira Arrasaten. 22:00etan hasiko da kirol ekitaldia; Haimarrek eta Santik Meaberen eta Etxanizen kontra neurtuko dituzte indarrak. Norgehiagoka hori Euskadiko Zesta 36 profesional mailako lehen txapelketarako baliagarria izango da. Maila polita izango da, Uarkapera etorriko diren lau jokalaririk horietako hiru Miamin izan dira zesta-puntan jokatu zuten. Horrekin batera, pilo-



Zesta-puntak eskaintzen ditu pilotalekuan ikus daitezkeen jokaldirik ikusgarrienak.

taren barruan modalitate hori da ikusgarrienetakoa. Salneurria ez da Uarkapera joateko oztopo izango, eta AUKEAkoek ahalegin berezia egin dute horretan. Sarrerak aurrez hartuz

**Hilaren 25ean Uarkapen jokatu-
duten partidua Euskadiko
Zesta 36 txapelketarako
baliagarria izango da**

gero 3 euro ordaindu beharko dira. Egunean bertan, berriz, 5 euro.

ARKU TIROKETAN, LEHENA
Dagoeneko urteroko hitzordu bilakatu da Arrasateko

SP-10 arku tiroketa taldeak San Juanetan antolatzen duen jardunaldia. Domekan, hilak 26, Arrasaten egingo duten saioa izango da Euskadiko Txapelketako lehena, eta zortzi taldek hartuko dute esku: Barakaldo, Bilbo, Etxebarri, Durango, Eibar, Oñati eta Arrasate. Txapelketari dagokionez, aurreko urteotako modalitate bera izango da: *Robin Apple*. Horrekin batera, Txapelketa amaitutakoan gura duten guztiek arku tiroketa probatzeko aukera izango dutela azpimarratu gura izan du Miguel Galvan, taldeko kideak.

DRAGOIKO NESKAK, GAUR
Gaur, egubakoitza, 18:00etan izango dira Dragoi Gimnasia Taldeko gimnasta gazteak erakustaldia egiten; Seber Altuben izango da hori.

Eta amaitzeko, jakin, zapatuan, hilak 25, bihar, muna kentzeko aukera ezin hobea izango dela txosnagunean, bertan egingo dute eta aerobitoia. Eutsiko al du gorputzak?

Markiegi

Gizonezkoen moda

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!



Olarte 2 Tel.: 943 79 15 32

A R R A S A T E

TELAETXE S.A.


Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik


- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK



CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



EKIDE S.L

Uribarri auzoa F-2.

20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 43

Faxa: 943 71 21 43

e-mail: ekide@sarenet.es

*San Juan jai
zoriontsuak pasa
ditzazuela opa
dizuegu!*

MUSIKA

Elliot Murphy, AEBetako folk-rock dotorea

Nazioartean hainbat bira egin dituen musikari esanguratsu horrek kantuak aurkeztuko ditu

IKER BARANDIARAN

Askok ezustea hartuko dute egitarauan Elliot Murphy ikusita. New Yorkeko lagun hori Bob Dylanen eskolako dela diote, eta sekulako ibilbidea dauka musikan.

Orain dela gutxi lagun batek aipatu zuen urtero San Juanetan, Monterronen, Euskal Herriko bakarlariek jotzen dutela: Mikel Urdangarin, Benito Lertxundi, Ruper Ordorika...

Aurtengoan, berriz, ez da halakorik izango. Horren orde, nazioartean ospea daukan Elliot Murphy musikari estatubatuarra ekarriko dute.

1973an estreinako lana —*Aquashow*— kaleratu zuenean, musika kritikariak Bob Dylan berria moduan bataiatu zuten, gitarra jotzeko eta abesteko modu bereziarengatik. Horren harira, AEBetako *Rolling Stone* aldizkari ospetsuak honako lerroak argitaratu zituen: "Elliot Murphy eta bere lana gurekin geldituko dira, rock-and-rollak irauten duen bitartean".

Horren ostean, 70eko hamarkadan, *Lost Generation* eta *Night Lights* disko klasikoak argitaratu zituen RCA diskoetxearekin. Eta handik gutxira, egin duen disko onena dela dioten *Just a story from America* kaleratu zuen.

EUROPAN, EZAGUNAGOA

Handik aurrera, Murphyk sarritan egin ditu birak European barrena. Hasieratik oso harrera ona izan du kontinente zaharrean. "Uste nuen inork ez ninduela European ezagutzen, eta Parisen egin nuen lehenengo emanaldian sei bis eman behar izan nituen", aitortu zuen Murphyk orain dela gutxi egin zioten elkarrizketa baten.

80ko hamarkadan, birak tartekatuz, hainbat disko kaleratu zituen: *Murphy the surf*, *Party girls/Broken poets*—lan horregatik New York Music Awards sariketarako hautatu zuten—, *Milwaukee*—Talking Heads taldeko Jerry Harrisonek ekoiztuta—, *Change will come* eta —Chris Spedding gitarra jotzaile gonbidatu izan zuen— *Live Hot Point*, besteak beste.

1990ean, AEBetatik alde egin eta Parisera joan



Murphyk 30 urte baino gehiago daramatza taula gainean eta 26 disko kaleratu ditu.

zen bizi izatera. European gehiago maite zutela konturatu zen, eta gurago zuen European dugun kultura zaletasuna. Parisen hainbat disko kaleratu ditu, eta AEBetan ere asko zabalitzen dira. 1995ean, *Selling the gold* izeneko lana hain-

bat musikari ezagunekin grabatu zuen: Roxy Music-eko Andy Newmark, Eurythmics-eko Chucho Merchan eta Rolling Stones-eko Luis Jardim. Horrez gain, Violent Femmes taldeko lagunak eta Bruce Springsteenek ere

esku hartu zuten ezagunez jositako disko hartan.

Murphyk lanean segitzen du, eta hainbat musikari ezagunek miretsi egiten dutela esan dute: REM taldeko Peter Dinklage, Lou Reedek, Springsteenek, Tom Pettyk, Elvis Costellok...

1973an estreinako lana —'Aquashow'— kaleratu zuenean, 'Bob Dylan berria' zela esan zuten, jotzeko eta abesteko moduagatik

Hainbat musikari ezagunek miretsi egiten dute Murphy: Springsteen, Lou Reed, Elvis Costello, REMeko Buck-ek...

Zapatua, 25
22:30ean

Monterronen

Elliot Murphy &
The Rainy
Season Band

**26 bat disko,
poltsikoan**

New Yorken jaio baina gaur egun Parisen bizi den musikari handi horrek leku finkoa irabazia dauka Europako eta AEBetako bakarlaririk handien artean.

Orain dela gutxi, *Never say never, the best of 1995-2005* diskoa kaleratu du, Xana Records diskoetxearekin. Aspaldian erabaki zuen diskoetxe txikiarekin lan egitea, eta hala jarraitzen du.

Monterronen, The Rainy Season Band taldearekin batera igoko da taula gainera: Oliver Durand gitarrak eta koruek arduratuko da, Danny Montgomery bateriak, eta Jorge Oterok baxua joko du. Murphyk, berriz, gitarra eta aho-soinua joko ditu, eta abestu egingo du.

Azkeneko hamarkadako eta bere hastapenetako kantuek uztartuko ditu kontzertuan, rocka eta folk amerikarra uztartuta.

Honako hau Arrasaten jotzen duen bigarren aldia izango da, Arrasateko Javier Bizz sustatzailearen esanetan. 80ko hamarkadan Murphyk kontzertu berezia egin omen zuen Ostarku dantzalekuan.



Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 29 46 Bergara
irala, 5 • Tel.: 943 76 27 16 Bergara
Otalora, s/n • Tel.: 943 79 82 68 Arrasate



Begirada guztien jomuga



Zorionak

Zatoz El Boulevard Zentro Komertzialera

150 establezimendu baino gehiago; jatexeak, zinema-aretoak, moda, etxeko gauzak, bolatokia, brikolajea, gasolina-serbitzugunea, gimnasioa eta Eroski hipermerkatu bat.

Ordutegia:

Merkataritza Arloan: Asteleheneretik larunbatera: 10,00 etatik - 22,00 etara.

Aisia-gunea eta jatetxeak: Asteleheneretik-Ostegunera; 12,00 etatik, 01,00 arte.
Ostiral, larunbat eta jai bezperetan; 3,00 arte.

Zaramaga, 1 • 01013 Vitoria-Gasteiz • www.el-boulevard.com



el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

ERRALDOIAK ETA KILIKIAK

20 urte Arrasateko eta ehunka herritako jaietan

1985eko San Juanetan sortu zuten Arrasateko erraldoien eta kilikien konpartsa, orain dela 20 urte

XABIER URTZELAI

San Juan bereziak izango dira herriko erraldoien eta kilikien konpartsa-erendako. Dagoeneko 20 urte bete dituzte, zailtasun bat baino gehiagorekin izan bada ere.

Arrasateko erraldoien eta kilikien konpartsa-erendako egun bereziak izango dira San Juanekoak. Urtero moduan lan egin beharko dute, baina badute zer ospatu, taldeak 20 urte egin ditu-eta Arrasateko eta beste ehunka herritako jaiak girotzen. Gainera, hainbat zailtasun gainditu eta gero, ospakizunak gogo handiagoarekin egiten dira.

18 urte egin zituztenean gorriak ikusi zituzten, taldea partaide gutxiarekin geratu zelako. Hamahiru lagun baino ez ziren taldean, eta hori ez zen nahikoa kilikiak eta erraldoiak kalera ateratzeko. Gura beste batzar eta herritarrei deialdi bat baino gehiago egin eta gero, hainbat gazte animatu eta taldean sartu ziren. San Juanetan

herritarrek gehien eskertzen duten ikuskizunetako bat desagertzeaz egon zen, baina azkenean lortu zuten erraldoiek behera ez egitea. Egun 20 lagun inguru dira, eta *etxafuegoak botatzeko* kopurua ez bada ere, aurrera egiteko moduan daude. Hori bai, orain dela bi urte bezala, konpartsa-ko ateak zabal-zabalik daude, aproposena hogeita hamar laguneko taldea izatea da-eta.

Aurrekoan kontatu zigutena gogoraziz, jakin, Arrasateko gaztetxoak oso zorrotzak direla, eta hementxo buruhandiek gogotik egin behar izaten dutela korrika. Hori bai, norbait harrapatutakoan, saria handia izaten da.

ARRASATE MUSIKALEKIN

Konpartsa-koek ekainaren 24an egingo dute lehenengo kalejira (11:00etan), eta konpainia ezin hobea izango dute, Arrasate Musikaleko bandarekin bat egingo dute-eta. Ez dira batera irtengo, konpartsa-koak ibiliko dira alde batetik, eta bandakoak bestetik, baina Seber Altuben elkartuko dira, Txomin Mujikaren *Aitziber* eta Jon baltsea dantzatzeko. Joan den urtean



ARRASATE PRESS

Herritarrek gehien eskertzen duten hitzorduetako bat da kilikien eta erraldoien kalejira.

ez bezala, baltsea dantzatu eta gero, kiliki eta erraldoiak ez dira bandakoekin Monterronera joango, nork bere aldetik jarraituko du kalejira.

AURTENGO IRTEERAK

Aurten, kilometroen alde egindako ekimenean ikusi genituen erraldoiak, eta San Juanetan egindako kalejirak ez dira urteko azkenak izango. Dagoene-

ko hainbat hitzordu dituzte apuntatuta. Uztailaren 9an, kiliki eta erraldoiak Lekeitiora joango dira, han egingo duten Kultura Aste-
ra. Eta aurten ere ez diote Marijaiaren deialdiari uko egingo; abuztu amaieran Bilboko jaietan izango dira.

KONPARTSA OSOA

Arrasateko konpartsa lau erraldoi, sei buruhandik eta bi zaldikok osatzen

dute. Erraldoiak Ganboatarren eta Oinaztarren arteko borroketako isla dira: batetik, Artazubiagako Martin Bañez eta haren emazte Sancha Otxoa daude; bestetik, Butroiko Gomez Gonzalez era haren emazte Leibako Elvira. Kiliki eta zaldikoe-
ek, berriz, hainbat garaitako pertsonaiak irudikatzen dituzte: Indianoa, Pirata Urdina, Olagizona...

Ekainaren 24an, egubakoitzean, Arrasate Musikaleko bandakoek jotako baltse bat dantzatzeko dute erraldoiek

**Domekan, berriz, Euskal Herri-
torritako 23 erraldoirekin batera kontzentrazioa egingo dute, 20.
urteurrena ospatzeko**

Egubakoitza, 24

Erraldoi eta kilikien konpartsa-
ren irteera (11:00etan).

Domeka, 26

11:00etan, erraldoien kontzentrazioa.

Erraldoien kontzentrazioa

20 urte beteko dituztela ospatzeko, konpartsa-koek erraldoien kontzentrazioa antolatu dute San Juaneko azken eguneko, domekarako. Hala, Arrasateko erraldoiek ez dute urtebetetze eguna bakarrik ospatuko. Eurekin izango dira Deustuko, Sanduzelai-ko (Iruñea), Kanboko (Iparralde) eta Txantreako (Iruñea) erraldoiak. Eta horiez gain, erraldoi txiki-
goak dituzten Deustuko eta Gasteizko talde bi espero dituzte, baina konfirmatu barik daude oraindik. Hala, Arrasateko txikien eta ez horren txikien gomenerako, 23 erraldoi inguru etorriko dira domekan Arrasatera. Eta kontzentrazioa izango bada ere, erraldoiek kalejira ere egingo dute, Zaldibarren hasita.

Ekimen berezi hori ez da izango, baina, 20. urteurrena ospatzeko Arrasateko erraldoien eta kilikien konpartsa-koek egingo duten bakarra, azaro ingururako badute-eta zerbait esku artean. Oraindik, baina, goiz da ezer aurreratzen.

MIKA
OSAGARRIAK

Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06



Ondo pasatu San Juan jaietan!



TOLDOAK, LEIHOAK, PERTSIANAK

PVC, aluminioa, mixtoa, kortinak, manparak



Zerrajera 3, ARRASATE

Tel.: 943 71 20 21

Ermodo 3, Durango

Tel.: 94 620 20 81

Gipuzkoako etorbidea 24, Ermua

Tel.: 943 17 09 04

Muebles

Kabía

Altzariak

4 URTE

interes barik

Gipuzkoa etorbidea, 28

20500 ARRASATE

Tel. Fax 943 79 27 70

mueblekabia@euskalnet.net

MUSIKA

Basamortuko rocka, post-HCa, metala, cumbia, punka eta beste

Txosna-gunean, plazan eta 3.60 aretoan, punta-puntako taldeak izango dira

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, datozen egunotan hainbat musika emanaldi izango dira herrian, eta nabarmendu beharra dago gehienak maila handikoak izango direla. Eskaintza txukuna egin dute.

Stoner musika estiloa boladan dago aspaldian. Besteak beste, AEBetako Kyuss, Fu Manchu, Queens Of The Stone Age taldeak, eta gure artean Sharon Stoner oñatiarrak, ahalegin handia egin dute 70eko hamarkadako soinuaren pisua daukan estilo indartsu hori eguneratzeko eta gurera ekartzeko.

Horiek guztiak sortu baino lehenago, 80ko hamarkada erdialdean, Kaliforniako Mojave basamortuan lagun batzuek Yawning Man taldea sortu zuten. Gerora, proiektu horretan jarraitu duten lagunek ibilbide oso oparoa egin dute, eta musikari ezagunak bila-



Yawning Man taldeko Alfredo Hernandez eta Mario Lalli stoner estiloko talde askotan ibiliak dira.

katu dira: Alfredo Hernandez bateria jotzailea (Kyuss, Queens Of The Stone Age...), Mario Lalli baxu jotzailea (Fatso Jetson, Orquesta del Desierto...) eta Gari Artze gitarra jotzailea (The Sort

Gaur egungo stoner talde askok azpimarratu dute Yawning Man aitzindaria izan dela 'basamortuko musika' asmatzen

of Quartet, Oddio Gasser...), hain zuzen ere.

Kaliforniako talde horrek rock instrumentala egiten du, eta AEBetako mendebaldeko mugako musikaren, *space rock* deri-

tzen estiloaren eta folkaren arteko nahasketa egiten dute. Oso emaitza berezia da, eta, jakina, taldekoak oso musikari onak dira.

Yawning Maneko lagunek oso disko gutxi kaleratu dituzte, besteak beste, beste talde askoren lanetan esku hartu dutelako. Orain dela gutxi, *Rock formations* izeneko diskoa kaleratu dute, Alone Records disko-etxearekin. Are gehiago, las-ter taldearen lehenengo grabazioak batuko dituen disko bikoitza argitaratuko du diskoetxe horrek.

Gaur egungo stoner talde askok azpimarratu dute Yawning Man taldea aitzindaria izan dela *basamortuko musika* deritzona asmatzen. Horrez gain, hainbat musikari ezagunek gorripatu egin dituzte.

AEBetako talde hori 3.60 aretoan izango da hilaren 25ean (22:30), Gasteizko Neubat stoner-rock taldearekin eta Ermuko PAM talde indartsuarekin.

HARDCOREAREN ONDORENGA
Hilaren 24an, Inoren Ero Ni eta Anger taldeek kon-

MENDIZABAL okindegia

egunero zure alboan!

ARRASATE

Seber Altube 2

943 79 89 60



MILARION

**Hilarion
jatetxea-taberna**

Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69

Eguneko menuak
Karta zabala

Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

Perez

Fruituak eta Janariak



Kontserbetan espezializatua

Maisu Guridi 3
Tel.: 943 71 29 99



MAE

Bidaiak

Ondo
pasatu
jaiak!

Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

tzertua egingo dute txosnagunean (01:00). Andoaingo Inoren Ero Ni taldea aipatzerakoan ezinbestekoa da Bap! gogoratzea. Euskal Herriko hardcorearen talde aitzindari horretako hiru lagunek (Eneko abeslaria, Drake baxu jotzailea eta Mikel bateria jotzailea) Bap! bertan behera utzi eta zazpi urte geroago proiektu hori abian jartzea erabaki zuten, Purr eta Hotel taldeetan ibilitako Borjaren laguntzarekin.

Inoren Ero Nik ez du Bap!-en pareko hardcorerik egiten. Izan ere, soinu horretatik haratago doa, post-hardcoretik hurbilago dago, hain zuzen ere. Oso erritmikoa eta indartsua da egiten duten musika eta, jakina, ahotsean Bap!-ekin antzekotasun handiak dituzte horiek, abeslaria bera da-eta.

Iaz ekainean *Inoren Ero Ni* izeneko diskoa argitaratu zuten Kaki Arkarazo soinu teknikariaren laguntzarekin. Metak diskoetxeak argitaratu zuen. 13 kantu batu zituzten estreinako lan hartan. Emaizta Bap!-ena baino ilunagoa da, entzunaldi gehiago behar dituena, baina arreta jarriz gero, gozatzeko modukoa. Dagoeneko Euskal Herrian eta Espainian hainbat emandaldi egiteaz gainera, European barrena bira bat egin dute.

HERRIKOEN METAL DOINUAK

Inoren Ero Ni taldearekin batera Arrasateko Anger talde beteranoak ere emandaldia egingo du txosna-



IKER BARANDIARAN

Ziur Bap! taldearen zaleak Inoren Ero Ni taldearen kontzertua ikustera joango direla.

gunean. Anger taldeak hainbat urte darama metal musika estiloa hardcorearekin eta rockarekin jorratzen. 2000. urtean, *Zuhaitz lehorra eraiten* izeneko bost kantuko lana kaleratu zuten. Handik urtebetera, 2001ean, Bilbo Hiria musika lehiaketarako sailkatu ziren. 2002an, grabazio estudioan sartu ziren berriro eta *Jarraitzen digun itzala* diskoa grabatu zuten. *Gara* egunkariak disko hori Euskal Herri osoan zabaldu zuen musi-

ka taldeen aldeko ekimen berezi baten.

2003an, taldeko bosgarren partaide zen Albertok taldea utzi zuen, ikasketengatik. Beste laurek (Ekain baxu jotzailea, Beñat gitarra jotzailea, Lopez bateria jotzailea eta

Arkaitz abeslaria) jarraitzea erabaki zuten. Gero eta gehiago jotzen dute, eta iaz disko bat grabatu zuten. Oraindik ez dute kaleratu, baina kontatu digutenez, labetik irteteko puntuan dago. San Juanetan izango dugu aukera

Inoren Ero Ni taldea Bap!-eko hiru musikaririk osatu dute, eta musika erritmikoagoa eta ilunagoa egiten dute

disko horretarako egin dituzten abestiak entzuteko.

KOLONBIATIK, PASAJEROS

Hilaren 25ean, Kolonbiako Pasajeros taldeak kontzertua egingo du txosnagunean, 01:00etan. Talde horren historia bitxia da benetan. Medellingo bost lagunek osatzen dute, eta Kolonbian ezagun samarrak dira. Lau disko argitaratu dituzte, eta protesta kutsua duten hitzak idazten dituzte.

Euren herrian, giza mugimenduen alde, protesta ekintzetan, kale agerraldietan... kontzertu ugari egin izan dituzte. Arrazoi horregatik, eskuindarren jomugan daude. Hain zuzen ere, 2004an, taldeko hiru kide atxilotu egin zituzten, gerrillakoak ziren akusaziopean. Atxilotuek frogatu zuten testigantzak faltsuak izan zirela, eta askatu egin zituzten. Baina paramilitarrek heriotza-mehatxua egin zieten. Hortaz, Kolonbiatik alde egin behar izan zuten.

Azkenaldian Otxandion bizi dira, eta asilo politikoa eskatu dute. Hilaren 25ean, zapatua, txosnagunean kontzertua egingo dute (01:00). Protesta-hitzak idazten jarraitzen dute, eta Kolonbiako eta Hego Amerikako musika estiloak jorratzen dituzte: cumbia, troba berria, popa, rocka...

Los Sparrer izeneko taldea Arrasateko musikari ezagunez osatuta dago, eta Cock Sparrer taldearen kantuak joko dituzte

Ekainaren 24an eta 25ean, 01:00etan

Txosna-gunean

Ekainaren 23an eta 25ean, 11:00etan

3.60 aretoan

Dantza ala punka?

Eguenean, hilaren 23an, *Never Surrender* eta *Los Sparrer*-ek kontzertua egingo dute **3.60 aretoan (22:30)**. **Lehena Arrasateko punk-Oi! talde gaztea da, eta bigarrena Cock Sparrer talde ingelesaren kantuak joko dituen talde inprobisatua.**

Jaietan DJekin dantza egiteko aukera ere izango da areto horretan, gauero, 04:00etan: 23an, Alain, Kaiet eta Beñatek; 24an, Christian Warehouse, Loren eta Ibaik; 25ean, Ene!, Balza eta Haitzek; eta 26an, Loren eta Haitzek.

Bestela, Herriko Plazan, Gaubela eta Tarantelakin dantzaldiak izango dira.

HOTEL MONDRAGON

Biteri etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43
Posta-e : hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

ERREKORTADOREAK

Jolasa eta arriskua bat eginda zezen-plazan

Lehen aldiz egingo dute Laubideko zezen-plazan errekortadoreen txapelketa

IRATI AGIRREAZALDEGI

Errekortadoreen txapelketa izango da San Juan egunean. Zortzi bikotek bigantxen aurrean jardungo dute nor baino nor gehiago, baita hainbat arrasatearrek ere.

Adardun ganadubaten aurrean ipintzea ez da gero nolana nahiko erronka. Errekortadoreek ongi dakite hori, eta euren ausardia jendaurrean erakutsiko dute zezen-plazan.

Lehen aldiz egingo dute aurten errekortadoreen

txapelketa Arrasaten, eta antolatzaileek uste dute jendea gerturatuko dela Laubide plazara, gazteak bigantxen aurrean nola moldatzen diren ikustera.

Iñigo Almortza antolatzaileak esan digunez, "lehen aldia izan arren, goizeko sokamuturrean jende dezente ibiltzen da kalean, beraz, zezen-plazara ere etorriko direla uste dugu. Ordua ere aproposa ipini dugu, 19:30ean; bestela, bero handia izaten da eta zezen-plazan eguzki galdatan egotea. Errekortadoreen saioak arrakasta izango balu datorren urtean bigantxekin egindako beste ikuskizun bat ekarriko genuke".



ANDER GILLENEA

Errekortadoreek lagun gehiago erakarriko dituzte zezen-plazara.

ERREKORTE ARTISTIKOAK

Bi lan izango dituzte errekortadoreek: lehenengo, minutu batean erreorte artistikoa egingo dute.

Bigantxen gainetik jauzi egin, ganaduaren aurrean geldi egon eta azken unean pasea egin, zein beste edozein mugimendu ausart

egin ahal izango dute errekortadoreek.

Ondoren, beste hiru minutu izango dituzte adarretan uztaiak sartzeko. Uztai gehien sartzan dituen bikoteak eskuratuko du puntu gehien. Gainera, kontuan hartu behar da adarrak ez daudela estalita

Zezen-zaleek, beraz, ikuskizun politaz gozatze-ko aukera izango dute.

Minutu bat izango dute erreorte artistikoa egiteko eta ondoren beste hiru minututan uztaiak sartu beharko dituzte adarretan

Egubakoitza, 24 19:30ean

Laubideko zezen-plazan

Incansables txarangak girotuta

Zortzi bikote txapelketan

Errekortadoreek bikoteka jardungo dute. Guztira zortzi izango dira bikoteak, eta tartean bada ibarreko parte-hartzailearik.

Arrasatekoa, bertakoa, bakarra: Blas Cruz. Harekin batera, Aitor Jaso, Unai Arana eta Iker Agirre bergararrek eta Aretxabaletako Egoitz Garziaetxabek ere jardungo dute. Zumarragatik Rodriguez anaia bikiak etorriko dira eta, Zaragoza, Lodosa, Mendabia eta Lizarrako errekortadoreek ere hartuko dute parte.

Ganaduak Nafarroako Espronzedan herritik ekarriko dituzte; Jesus Estenagaren ganadutegitik, hain zuzen ere.

Errekortadoreek txapelketan behiekin jardungo badute ere, amaieran zezen baten aurrean erakustaldia egiteko aukera ere izango dute.

JOXAN

Bitxitegia eta erloju denda

Erloju on bat zure eskuetan egon daiteke

Portaloia 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 22 24

1907tik...

Maalako Errabala, 3
20500 ARRASATE
Telf-Faxa: 943 791262

Casa Ceciaga

Lentzeria Mertzzeria Puntuzko osagaiak

Jai zoriontsuak opa dizkizugu!

Arbolapetan
Olarte23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 27

ZABALA

oinetakoak

57 urtean elkarrekin ibili gara

Ospa ditzagun San Juanak!

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27

HERRI BAZKARIA

Bost urte igaro eta gero, herri bazkaria berriro

2000n utzi zioten egiteari, parte-hartzea jaisten-jaisten joan zelako urtetik urtera

UBANE MADERA

Zaldibarren egingo dute bazkaria, arbolapean. Eguraldiak laguntzen ez badu, Saiolango beheko aterpean. Menuan, besteak beste, Giokelako saiheskiak.

SUDC elkarteak San Juanetako herri bazkaria berreskuratu gura du. Hala kontatu digu SUDCeko presidente Andoni Altzelaiak. Esan digu 300 lagunendako lekua gorde dutela aurten; eta gero ikusiko dutela ea hori nahikoa den edo gehia-

gorendako lekua gorde beharko duten aurrerago.

TXARTELAK, SALGAI

Herri bazkarirako txartelak Kajoi, Okoretegi eta Monte tabernetan ipini dituzte salgai: "Gure asmoa da 22ra arte izatea txartelak salgai, jakiteko zenbat jende etorriko den".

DAGOENEN 140 LAGUN

Horren harira, kontuz ibili beharko da txartelak gas-tatu baino lehen erosteko. Besteak beste, SUDCekoek dagoeneko badakitelako 140 bat lagunek parte hartuko dutela: "Aprobetxatu egin dugu konpartsa-koak egin horretan dato-



Irudian, orain dela bost urteko herri bazkaria; Uarkapen egin zuten, eguraldi txarrarengatik.

zela haiei gurekin bazkaltzeko aukera eskaintzeko". Modu horretan, gainera, giro ona ziurtatuta dute, konpartsakoen jai-giroak

eta haien dultzainen musikak lagunduta.

Herri bazkariaren prezioari dagokionez, hamar euroan ipintzea erabaki

dute: "Ahalegindu gara merke samarra egiten. Horren barruan egongo da: lehenengo platerian, urdaiazpikoa (xerra pare bat-edo), txorizoa, esparragoak (hiru bat) eta langostinoak (lau-edo); bigarrean, Giokelaren kilo erdi saiheski bakoitzarendako, ardo botila bat bi edo hiru-arendako eta bukatzeko, postrea eta kafea".

Menua: lehenengo platerian, pikatzekoak, eta bigarrean, Giokelaren saiheskiak; ardoa, postrea eta kafea ere badira

**Domeka, 26
14:30ean**

Zaldibarko arbolapean

Mokadutxoak eta saiheskia

SUDC bereziki ahalegindu da

SUDC elkarteak ahalegin berezia egin du San Juanetako herri bazkaria berreskuratzeko. Aldez aurretik egin beharreko lanaz gainera, egunean bertan, 25 bat lagun ibiliko dira jakiak prestatu eta zerbitzatzeko, mahaia ipintzen... Giokelako saiheskiak prestatzeko, berriz, Giokelakoak eurak etorriko dira, tresna bereziekin.

14:30ak ipini dute herri bazkarirako ordua, baina inor ez da geratuko jan barik: "Badakizu, hirugarren eguna, jendea txikiteoan... 14:30ak ipini dugu, baina seguru batzuk etorriko direla 15:00etan-edo; hala ere, generoa izango da. Hortaz ez dago problemarik".

Beraz, aukera polita izan daiteke herri bazkaria, batez ere, gauez barik, jaietan egunez ibiltzea nahiago dutenendako.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK



Tel.: 943 79 01 51 • Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel Arquero

Dekorazioa:

Soraya Arquero

San Juan

jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Takoi

- Zapata konponketak
- Giltzen kopiak
- Urrutirako aginte tresnen kopiak

Kalealdea 2 -behea (Larreako etxeak)

Tel.: 943 79 84 95



ARPE

Ile apaindegirako artikuluak

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

BERTSO SAIOA

Ohiko bertso saioa, leku berezian

Bost bertsolarik jardungo dute Lierni Altunaren esanetara Monterron parkean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azken urteotan beza-la, aurten ere bertso saioa izango da San Juan jaietako egitarauaren baitan. Bost bertsolari ezagunek jardungo dute bihar Monterronen.

Bertso saioa izango da bihar, zapatua, 22:30ean. AED elkarte-ko bertso eskolako Udalaren laguntzaz antolatutako saioa da.

Enaitz Alustiza, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Amaia Agirre eta Amets Arzallus bertsolariek jar-

dungo dute saioan, Lierni Altuna gai-jartzaile aramioarraren esanetara. Enaitz Alustizak izan ezik gainontzeko lau bertsolariek datorren urrian hasiko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartuko dute parte.

Lierni Altunak esan digu saioa ohiko jaialdien haritik joango dela, eta saio gehienetan izaten direnen antzerako ariketak ipiniko dizkiela bertsolariei.

Hala ere, antolatzaileek esan digute, zerbait berezia egin eta txikiei aukera emate aldera, AEDko gaztetxoek bertso eskolakoek ere izango dutela euren parte hartzea saioan.



Urtero bertsolari beteranoak eta gazteak izaten dira jaialdian.

PARKEAN EGURALDIA LAGUN
AEDkoen asmoa da saioa Monterron parkean egitea; hala izango da, eguraldiak laguntzen badu behintzat.

Izan ere, aurreko bi urteetan saiakerak egin dituzte, baina azken momentuan euria zela eta Amaia antzokian jardun

dute bertsolariek. "Monterron parkea paraje polita da gauzez maila horretako bertso saio bat entzuteko, eta pena litzateke aurten ere aukera hori bertan behera lagatzea", esan digute antolatzaileek.

Bost bertsolari, inguru egokian kantuan. Bertsozaleek, horrenbestez, badute aukera saio polita entzuteko.

Saioko bost bertsolarietatik lauk Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartuko dute parte urritik aurrera

Zapatua, 18
22:30ean

Monterron parkean

Enaitz Alustiza,
Aitor Mendiluze,
Jon Maia, Amaia
Agirre eta Amets
Arzallus

Bertso eskolatik taula gainera

Bertso saioko kartela gertatzen dirakoan, beti saiatzen dira antolatzaileak euren bertso eskolako kideren baten kantuan ipintzen gainontzeko bertsolariekin. Aurten Enaitz Alustiza bergararrari egokitu zaio txanda.

Enaitzen esanetan, "aukera polita" da horrelako saio batean jardutea. "Beste edozein tokitan zaila izango litzateke maila horretako bertsolariekin jardutea; beraz, aukera aprobetxatu beharra dago, kanturako oinarriak hartzeko ere balio digulako".

Ez omen du prestatzeko nahiko denbora izan, baina presiorik gabe joango dela aitortu digu. "Ahalik eta saiorik txukunena egiten saiatuko naiz. Beste maila batean egon arren, aurrez ere inoiz kantatu dut bertsolari handiekin, eta ez nago urdurik".

Ondo pasau San Juanetan!



Ane Lasagabaster eta Karmele Bikuña

ANE
LASAGABASTER
H O R T Z K L I N I K A



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartea D - 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 13 68

Goizez eta arratsaldez irekita

SPORT

Key

poltsiko guztietan egongo den giltza



Giltzaren kopia egiterakoan eska itzazu zure ohiko saltokian

gora San Juan!

JMA

www.jma.es

ERREMENTARI DANTZA

Dantza eta musika herriko kaleetan barrena

Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeetako dantzariak herriko musikariekin jardungo dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Dantzaz beteko dira San Juan bezperan Arrasateko kaleak. Azken urteotako ohiturari jarraituz Errementari Dantza egingo dute herriko dantzariak.

Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeetako dantzariak Arrasate Musikaleko Bandaren, Trikitixa Eskolako, txistularien, gaitarien, albokariaren eta txalapartariaren doinuaren erritmora dantzatzuko dute. Erraldoi eta Kilikien Kon-

partsak eta bertsolariak ere parte hartuko dute Errementari Dantzan. Guztira, 100 dantzari eta 50 musikari inguru elkartuko dira Herriko Plazan.

KONDAIRA GOGOAN

Jose Ramon Vitoriaren musikan oinarrituta 1995ean asmatu zuten dantza hori, eta ohitura bihurtu da herritarrendako.

Urte luzez arrasatearrak izutu zituen dragoiaren kondaira irudikatzen du dantzak; eta herensugea akabatu zuten errementariak ditu gogoan. Dantzan ari direla makilekin egiten duten soinuak, esaterako, errementariak



Dantza ikuskizun paregabeak egiten dituzte jaietan.

ANDER GILLENEA

lanean ateratzen zuten zarata imitatu nahi du.

Musikak eta dantzak errementariak ateratzen zuten zarata irudikatu nahi du

Azokan elkartu eta Maalako Errabalera joango dira dantzariak. Ondoren, Portaloian geldiduna egin eta hainbat dantza eskainiko

dituzte; eta Iturriotzen eta Erdiko kalean barrena plazara joango dira. Hori da ohiko ibilbidea, baina obretan ari direnez, baliteke Ferixalekutik edo Grupo San Juandik abiatzea.

Kaleetan barrena, Iparaldeko eta Nafarroako dantzetan oinarrituta Alkate Dantza, Ingurutxoak, Polka eta San Juan Zortzikoa dantzatzuko dituzte.

Dantzan ari direla makilekin egiten duten soinuak garai bateko errementariak ateratzen zuten zarata irudikatu nahi du

**Eguena, 24
21:30era**

Maalako Errabaletik
Herriko Plazara

Arrasateko euskal musika eta dantza taldeak

Aurreksua eta Soka Dantza


Errementari dantza ez da euskal dantzak gustuko dituztenen dantza hitzordu bakarra.

San Juan egunean, 12:00etan aurreksua dantzatzeko dute santuaren irudiaren aurrean Lore Gazteak dantza taldeko bi lagunek; egun horretan bertan San Juan zortzikoa ere dantzatzeko da plazan.

Bestalde, San Juan hirugarrenean, ekainaren 26an, soka dantza egiten dute. 19:30ean da hitzordua Herriko Plazan. Garai batean herri askotan udalbatzak egiten zuten dantza hori. Hainbat urtean galduta egon ostean, dantza taldekoek berreskuratu zuten orain dela 10 urte inguru, eta orain eurek dantzatzeko dute. Mala ere, horrelako dantzak jailetan mantentzea zaila dela esan digute taldekoek, dantzariak nekatuta egoten baitira.



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Zutikako eta etzandako
solariuma

San Andres auzoa

Tel.: 943 79 04 28

ARRASATE



**Barceló
Bidaiak**

Ondo pasau jaixetan!

Maalako Errebala, 31

Tel.: 943 79 70 11

JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA

Olarte kalea 20
ARRASATE

Ondo pasatu Santamasak
eta urte berri on!

ZAHARRAK

Merezitako omenaldia 80 urtetik gorakoek Abaroan

San Juan egunean luntxa eta opariak izango dira 80 urtetik gorako adinekoendako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak 80 urtetik gorako arrasatearrak omenduko ditu San Juan egunean Abaroa egoitzan. Adineko bakoitzari opari bana emango diete Udaleko ordezkariak.

Adinean gora joan arren jai gogoz dira oraindik Arrasateko edadetuak. Hori jakin badaki Udalak, eta eurendako ere gertatzen du ekitaldirik. Besteak beste, 80 urtetik gorakoei omenaldia egiten diete San Juan egunez.

Aspaldiko ohitura da omenaldiarena, eta aurten ere usadioari eutsiko diote. Omenaldia meza nagusiaren eta ohorezko San Juan zortzikoaren eta agurraren ostean izango da; 12:30ean, Abaroan.

Garai batean omenaldia udaletxeko osoko bilkuren aretoan egiten zuten, baina gero eta edadetu gehiago joaten denez, azken urteetan Abaroa egoitzan izaten da ekitaldia.

Omenaldian parte hartu nahi duten 80 urtetik gorakoek aurrez izena eman dute udaletxeko idazkaritzan, eta bertan esan digutenez, 150 lagunetik gora elkartuko dira.



XABIER URZELAI

Herriko nagusiek pozik hartzen dute Udalaren omenaldia.

LUNTXA ETA OPARIA

Plazako dantza saioaren ostean, erretiratuak Abaroara gerturatu ahala euren lekuetan jarri eta

luntxa zerbitzatuko diete. Luntxa izan arren bazkaria bertan egiten dutela esan genezake, jaki goxoak ipintzen dizkiete-eta aukeran.

Tripa bete ostean, omenaldirako izena eman duten erretiratu guztiek opari txiki bana jasoko dute, egunaren oroigarri modura, Udaleko ordezkarien eskutik.

Aipatutakoez gain, beste bi opari berezi ere izango dira Abaroako ekitaldian. Izan ere, omenaldian parte hartzen duen gizonetarako zaharrenari txapela emango diote; eta emakumeetarako nagusienari, berriz, lore sorta.

Omenaldian parte hartzen duen gizonetarako zaharrenari txapela emango diote; emakumeetarako nagusienari, berriz, lore sorta

kumezko nagusienari, berriz, lore sorta.

Beharbada omenduko dituzten horiek ez dira izango Arrasateko gizon eta emakume zaharrenak, baina egun horretan bertan daudenen artean nagusienak bai.

Zaharrek, beraz, euren modura San Juan jaietz gozatzeko aukera izango dute.

CESPA

Santalaitz 6 behea 2

20570 BERGARA

Tel.: 943 76 17 56

Faxa: 943 76 05 88

Posta-e: mondragon_cespa@cespa.es

Ondo pasa jaixetan!

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea.
- Fatxaden, pintaden eta abarren garbitzea.
- Kale garbiketak.



ER-0238/2/97

SUZKO ERRUBERAK

Kolorea eta zarata bat eginda Arrasateko zeruan

Santa Barbaratik botako dituzte suzko erruberak Astondoa etxekeok San Juan gauean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Suek jaietan duten protagonismoa jakina da. San Juan bezperako su txinpartak koloretako suzko errubera ikusgarri bihurtuko dira San Juan gauean.

Urteren baten kale egin badute ere, ia mende erdia daramate Astondoa etxekeok Arrasateko jaietan suzko erruberen ikuskizunak eskaintzen.

Aurten ere, hutsik egin gabe Santa Barbaran izango dira San Juan gauean,

Arrasateko zerua koloretako suziriz estaltzeko gertu.

Ikusleak Kontzezino, Uarkape zein San Andres inguruetan elkartzen dira, gora begira jarri eta suen edertasunaz gozatzeko.

Gutxi gorabehera 15 minutuko emanaldia izango dela aurreratu digute Astondoa su-etxe bizkaitarrekoek.

KOLOREA ETA ZARATA

Suak gertatzeko orduan, adituek kontuan hartzen dute jendeari zer gustatzen zaion gehien. Astondoakoen esanetan, "uste dugu jendeak gero eta gehiago erreparatzen diola kolorearen eta soinuaren arteko sintoniari. Hala ere, zaratarik ezin da falta suzko erruberen ikuskizun batean, batez ere azken trakan".



Forma eta kolore askotariko suzko erruberak botako dituzte Santa Barbaratik.

ASTONDOA

ren arteko sintoniari. Hala ere, zaratarik ezin da falta suzko erruberen ikuskizun batean, batez ere azken trakan".

BERRIKUNTZAK

Iazkoarekin alderatuz aurtengo ikuskizunak izango du berrikuntzarik. Astondoakoe eman digute, hain

zuzen ere, horien berri: "Ikusiko ditugu kolore askotariko daliak, koloredun enborrekin, eraztun bikoitzak, kometadun irudiak (bitxiloreak, bihotz bikoitzak, krisantemoak...). Oro har, efektuetan oinarrituko dira berrikuntzak".

Ez dago, beraz, Donostiako Aste Nagusira arte zain egon beharrik suzko erruberak ikusteko.

"Jendeak gero eta gehiago erreparatzen dio kolorearen eta soinuaren arteko sintoniari; baina zaratarik ezin da falta"

Egubakoitza, 24
23:00etan

Santa Barbaratik

Suzko erruberak
Astondoa
pirotekniaren
eskutik

Astondoa piroteknia

Eustakio Astondoa sortu zuen Areatzako su etxea 1861ean, eta haren semeak etxean ikasi zuen lanbidea. Orduan, batez ere koheteak, bonbak eta trakak egiten zituzten. Ondoren, Mediterraneo aldera jo zuen teknikak hobetzeko, eta garai hartako berrikuntza ekarri zuen: kolorea. Haren semeek jarraitu zuten negozioa, eta gaur egun familiako laugarren belaunaldia hartu du su etxearen ardura, izaskun Astondoa buru dutela. Etxe horrek egindako ikuskizunen artean aipatzekoa da Bilboko Guggenheim museoren inauguraziorako gertatutakoa. Lehiaketarako ere egiten dituzte ikuskizunak. Donostiako Aste Nagusian bizpahiru aldiz egon dira eta azkenekoan, baita ikusleen bigarren saria irabazi ere.

Aldape Taberna
Eguneko menua
Jatetxea

ARRASATEKO BATZOKIA

Iturriotz 41. ARRASATE

Tel.: 943 79 63 69



Lore

Lurrindegia eta
estetika zentroa

Olarte 10 • ARRASATE

943 79 52 50



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ONANDIA

Goxotegia
Dastalekua
Izozkitegia

Iturriotz 11. Tel.: 943 79 12 31

IRRATIA

Kaleko jai giroa irrati uhinen bitartez etxeetara

Arrasate Irratian San Juanetako saio berezia izango da, ekainaren 24an, 10:30etik 13:00etara

IRATI AGIRREAZALDEGI

Arrasate Irratiko esatariek kaleko giroa etxeetara ekarriko dute San Juan egunean eta bezperan. Estudioan ere izango dira jaietako protagonistak.

San Juan suak erreko du irrati neguko programazioa (*Igo autobusera*) eta errautsetatik jaietako saio berezia aterako da, ekainaren 24an. Horrez gainera, bezperan, *Igo autobusera* saioan ere San Juanak izango dituzte berbetarako gai.

ENTZIERROA ETA SALBEA

San Juan egunean jaietan murgilduko dira bete-betean Arrasate Irratiko lankideak. Kanean gertatzen denaren lekuko zuzenak izan nahi dute, eta, mikrofonoa eskuetan dutela, entzierrora, meza nagusira eta salbera joango dira, besteak beste.

Kaleko protagonistez gain, irrati estudioan ere izango dira batzuk. San Juan bezperako kontuak, San Juan egunekoak eta jaietan etorriko denaz berba egingo digute Nerea Zubietek eta Aitziber Aranburuzabalak. Teknikari lanetan, berriz, Gaizka Vitoriak jardungo du.



UBANE MADERA

Gaizka Vitoria, Nerea Zubiete eta Aitziber Aranburuzabala dagoeneko murgildu dira jai-giroan.

Saioa 10:30etik 13:00ak bitartean entzun ahal izango da FMko 107.7an. Errepikapena 15:00etatik 17:30era emango dute.

ENTZULEEN PARTE-HARTZEA
Irratiko esatariek entzulei saioan parte hartzeko gonbita egin nahi diete. 943 71 17 31 telefonora deitu eta

jaietako gorabeherak kontatu baino ez dute egin behar.

Trukean opariak izango dituzte irratiok entzuleen artean banatzeko: ekainaren 24ko Dragoi Janerako sei txartel AEDren eskutik, eta ekainaren 25ean Uarkapen jokatu duten zesta-puntako partidurako lau sarrera, AUKE-Aren eskutik.

San Juanetako saio berezia egin eta asteburua jai giroan pasatuta, bihar munari aurre eginez, ekainaren 27an udako irratsaio berriari gogotsu ekingo diote Arrasate irrati lankideek.

Hala, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 10:00etatik 12:00etara bitartean egingo dute *Uda giroan* irratsaioa.

Saio bereziak ekainaren 24an izango badira ere, bezperan, *Igo autobusera* magazinean ere izango dira berbagai San Juanak



PATRICIA
CLARKS
YANKO
MASCARÓ
LOOKY
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PIELSA
CATS
KOLLFLEX
WONDERS
SACHA LONDON
GEORGES

OINETAKOAK

Yoar

Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

ILE-APAINDEGIA

Otalora 22 behea Tel.: 943 79 42 10 ARRASATE



Uriarte

Ondo pasau San Juan jaixak!

Olarte 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

Harategia: Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

TELEBISTA

Bertso gosez dagoena, gustura

'Jaiak 2005' saioaren barruan, berebiziko garrantzia izango du zapatuko bertso emanaldiak


XABIER URTZELAI

Ibarreko telebistak saio berezia egingo du San Juanetan batutako irudiekin. Horrekin batera, jaien berri emango dute albistegietan.

San Juan jaien berri telebistan izan gura duenak ez du martitzenean, hilak 28, botako duten *Jaiak 2005* saiora arte itxoin behar izango, Goiena Telebistak eguerdiko eta iluntzeko albistegietan emango du eta jaien berri. Julen Iriondok aurkezten duen arratsaldeko lehenengo ordukoetan —14:15 eta 15:30— eta Deiane Arrietak aurkezten duen ilunkera-koetan —20:00 eta 22:00—,

Hori bai, jaiak bukatuta, gainbegiratua egin gura duenak lehenago aipatutako egunean izango du aukera. Ordurako, telebistako lankideek gertu izango dute San Juanetan izango diren ekitaldi berezien gaineko saioa, Kepa Errastik eta Ainhoa Alberdik aurkeztuta.

AURRERAPEN BATZUK
GOITBkoak dagoeneko hasi dira jaietako saio hori nola landu prestatzen, eta ezer esan barik, saio horretako gidioa "lapurtu" diegu. Hala, badakigu zapatuan, hilak 18, Haur Danborradako irudiak grabatuko dituztela. San Juan bezperan, berriz, kamerek gura beste lan izango dute: koadrilen arteko bazkaria, 19:30ean egingo duten Sal-



Aitor Mendiluze, Jon Maia, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Enaitz Alustiza izango dira bertso saioan.

be Solemnea, Errementari Dantza, San Juan Sua eta Nagusien Danborrada grabatuko dituzte.

San Juan egunean ere ezin izango dute deskantsurik hartu. 09:00etarako Arrasateko kaleetan izan-

go dira, entzierroa grabatzen. Gero etorriko dira erraldioen eta konpartsa-koen irteera eta arratsalde partean zezen-plazako erre-kortadoreen erakustaldia. Ez dute eguna hor amaituko, 23:30ean Monterronen

egongo den *Klonk hip-hop dance* ikuskizuna ere grabatuko dute-eta.

ZAPATUAN, KONTZERTUAN

Egun horretan grabatuko dituzten lehenengo irudiak Zaldibarren izango dira. Aurkezleak umeekin batera murgilduko dira jolasparkean, eta elkarrekin egingo diote Eguzki Laruri ongietorria. Gero, txosna-gunean egingo duten

Goiena Telebista San Juan jaietan

MARTITZENA, 28

21:00: 'Jaiak 2005' San Juan jaietako egitarako ekitaldietan jasotako irudi erakargarriekin egindako saioa.

herri bazkarian izango den giroa jasoko dute. Eta gure partean, txosna-gunean hurbil, Monterron parkean joango dira Elliot Murgiren rekin gozatzerara.

Eta jaietako azken egunean, 13:00etan erraldioan egingo duten kontzertu zioa jasoko dute, eta 20:00etan Trio Chamuyoren emanaldiarekin egingo diete agur kanpoko grabaketei.

TARTE BATZUK, BEREZIAK

Grabatuko dituzten ekitaldi batzuei izaera berezia emango diete. Hala, bihar egingo duten bertso saioa erre-kortadoreen erakustaldia eta hip-hop ikuskizuna osorik grabatuko dituzte. Irudi horiek guti-ati jasota, teknikariak ordenagailuen aurrerak jarriko dira, jaietako irudi ikusgarrienak aukeratu, editatu eta *Jaiak 2005* saioa egiteko. Etxean jasotako irudiak duzue lan horren gurtzarren emaitza, martitzenean, hilaren 28an.

GOITBk bihar, zapatua, egingo duten bertso saioa oso-osorik grabatuko du



ANBOTO

Ondo pasatu San Juanak!

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 ARRASATE

Tel.: 943 77 14 11 / 943 77 08 82

www.inmoarrasate.com

Lizarralde

kirolak

Ondo ibili San Juanetan!

**Bizikleten salmenta
eta konponketa**

Oñati
Olakua, 16.
Tel.: 943 78 29 86

Arrasate
Foruen plaza, 1-2
Tel.: 943 79 91 47

Tel.: 973 77 15 86



MRENDERUE

*San Juanetan
etxean nahi ditugu!*

ASTORE

THE ACTION SPORTSWEAR

TERNUA

non gogoia, han zangoia

ondoko
pasau
jai-xek

ondoko
pasau
jai-xek

ASTORE.ES
TERNUA.COM


Arrasateko zerbitzu
eta merkatarien
elkarteak, San Juan
jai zoriontsuak
opa dizkizue!



Ibai-arte, Arrasate erdi-erdian zure dendak

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005



GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



GRUPO RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
FAGOR

Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

GRUPO RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea
expert

Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA